


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Hezkuntza eta kirol fakultatea

GRADU AMAIERAKO LANA

Lehen Hezkuntzako Gradua

“Indarkeria sinbolikoa eta hezkidetzaz hezkuntza eremuan”

Egilea: Gezuraga Malaxetxebarria, Sara

Zuzendaria: Duque Ingunza, Ainara

2021

LABURPENA

Hezkuntza sistemaren erronka nagusia harreman parekideak lortzea da, tartean, gizon eta emakumeen artean. Hori dela eta, lan honen helburua hezkidetzaren garrantzia azpimarratzea da, baita ere, hau garatzea ekiditen duen ohitura eta zikloak identifikatzea. Bizkaiko hezkuntza zentroetan oraindik ere badira ingurumen fakore asko ikasleen arteko harreman parekideak baldintzatzen dituenak; tartean komun segregatuak eta futbol zelaien okupazio nabarmenak. Gainera, ikastetxeko irakasleen ehuneko handi bat emakumea da, beraz, zer suposatzen du horrek? Bizkaiko unibertsitateetan matrikulatu diren hautaketetan ere, tendentziak ageri dira genero ikuspuntutik; hezkuntza sailera bideratutako gehiengoak, hala nola, emakumeak dira. Horrek adierazten du, behin eta berriz sistema heteropatriarkatuak harreman desperekidekatuak erreplikatzeko dituela.

Hitz gakoak: Sistema heteropatriarkatua, hezkidetzak, genero berdintasuna, harreman parekideak, indarkeria sinbolikoa.

RESUMEN

El principal reto del sistema educativo es lograr relaciones igualitarias entre hombres y mujeres. Por ello, el objetivo de este trabajo es destacar la importancia de la coeducación, así como identificar hábitos y ciclos que eviten su desarrollo. En los centros educativos de Bizkaia todavía existen muchos factores ambientales que condicionan las relaciones igualitarias entre los escolares, entre ellos los baños segregados y las ocupaciones notables de los campos de fútbol. Además, un alto porcentaje de profesorado del centro es mujer, y eso ¿qué supone? En las elecciones que se han matriculado en las universidades vizcaínas también se muestran las tendencias desde el punto de vista de género; las mayorías dirigidas al departamento de educación, por ejemplo, son mujeres. Esto significa que el sistema heteropatriarcado replica repetidamente las relaciones desiguales.

Palabras clave: Sistema heteropatriarcado, coeducación, igualdad de género, relaciones igualitarias, violencia simbólica.

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA	4
2.1 Hezkidetza ulertzen	5
2.1.1 Historia pixkat	5
2.1.2 Zenbait kontzeptu azaltzeko beharrezana	6
2.2 Hezkuntza sistema	10
2.2.1 Hezkuntzaren garapena	10
2.2.2 Zer mezu ezkututzen ditu generoei, kulturako eta gizarteko rolei buruz curriculum ezkutuak?	12
2.2.3. Curriculum ezkutua eta ikasleen aukeraketak	13
2.3 Hezkuntza hezkidetzagilea eta harremanak LH-n	14
2.3.1 Hezkidetzaren garrantzia Lehen Hezkuntzan	14
2.3.2 Hezkidetza harremanak LH-n	16
2.3.3 Gatazkak	17
2.3.4 Hezkuntza hezkidetzagilearen legea	18
3. HELBURUAK	19
4. I KAPITULUA: BIZKAIKO ESKOLA PUBLIKOETAKO ERREALITATEA IKUSPUNTU HEZKIDETZAGILETIK	19
4.1 Metodologia	20
4.1.1 Lagina	20
4.1.2 Prozedura	20
4.1.3 Tresnak	20
4.2 Emaidzak	21
4.2.1 Ikastetxeen erantzunak	21
4.2.2 Irakasleen formakuntza:	22
4.2.3 Zentro barneko lan karguak:	23
4.2.4 Eskolako agertokiaren egitura:	25
4.2.5 Mutilen ikusgarritasuna eta ikasleen arteko harremanak:	26
4.2.6 Hezkuntza Lege Hezkidetzagilea:	27
4.3 Ondorioak	27
5. II KAPITULUA: UNIBERTSITATE GRADUEN PREFERENTZIAK GENEROAREN ARABERA BIZKAIAN	30
5.1 Metodologia	30
5.1.1 Lagina	30
5.1.2 Prozedura	30
5.1.3 Tresnak	31
5.2 Emaidzak	32
5.2.1 Emakume/gizon portzentaia handiena daukaten ikasketak	32
5.2.2 Parekidetasunaren grafikoak	35
5.3 Ondorioak	37
6. ONDORIO NAGUSIAK	38
7. BIBLIOGRAFIA	40
8. ERANSKINAK	46
A ERANSKINA: Miguel Angel Santos Guerra (1990) Curriculum oculto y construccion de genero en la escuela lanean oinarritutako taula	46
B ERANSKINAK: Galdetegiak	50
Euskaraz	50
Gazteleraz	54

1. SARRERA

Hezkuntza, gizarte batean berdintasuna lortzeko asmoz eginda dagoen erreminta bat da. Baina, zer da berdintasuna? Pertsonak ahal gara ingurura ohitu behar garenak ala ingurua da guregana egokitu behar dena? Feminismo hitza geroz eta gehiago ikusten da edozein lekutan. Diskurtso politikoetan ere feminista dela esateak puntuak ematen dizkio alderdiari, baina, egokia ote da hain mugimendu garrantzitsu batez norberegantzea eta normalizatzea, kontuan hartu gabe feminista izateak inplikatzeko duena? Biolentzia sexistak geroz eta kamuflatuagoak dauden gizarte batean bizi garela ohartu naiz aspaldian, horregatik genero berdintasunaren inguruko kontzeptu, balore eta ohiturak ikusi eta ikastearen garrantzia azpimarratu nahi nuen. Hori dela eta, GrAL hau genero berdintasunari eskaintzea erabaki nuen.

Etorkizunean irakasle izango garelarik, gizartearen eraldaketan parte hartzeko aukera izango dugu. Eskola alor kognitiboaren garapenez arduratzen den esparru bat delakoan; garrantzia gehiengo horri eskaini zaio historian zehar. Metodologia tradizionaletatik urruntzen joan garen heinean, aitzitik, ohartzen goaz gutxika harremanak garatzeko espazio nagusienetako bat dela eskola, ikasleak etengabeko kontaktuan daudelako berdinekin. Hori horrela, geroan eragin handia izango duten gaitasun sozial ugari garatzen dituzte Lehen Hezkuntzako etapa osoan, eta horregatik, irakasleok bitarte horretan zeregin garrantzitsua dugu. Hezkuntza, eta horrekin batera, hezkuntza sistema, gerora jendarte antolatu eta bertan bizitzeaz arduratuko diren banako bakoitzari aukerak emateaz arduratzen da. Gu ere, horren parte garelarik, aditasun handia izan behar dugu gure lanean. UNESCOren web orrialde ofizialean ageri den bezala, 2019an eguneratu zen Hezkuntza Eskubidearen atalean honela adierazten da: “Hezkuntza tresna ahaltzua delarik, aukera ematen die gizartearen eta ekonomikoki baztertuta dauden haur eta helduei pobreziatik ateratzeko eta komunitatean parte hartzeko. Horretarako, aukera-berdintasuna eta sarbide unibertsala egon behar dira” (UNESCO, 2019).

Alabaina, globalizazioaren ondorioz, geroz eta gizarte hiperkomunikatuago batean bizi gara, zeinak kultura, genero, egoera sozioekonomiko eta bestelako talde anitzen existentzia aintzakotzat hartzen duen geroz eta gehiago. Hala nola, nahiz eta kontzientzia hori garatzeko bidean gauden, oraindik ere hutsune asko nabari dira hezkuntza sisteman. Izan ere, eskola gehienetan erabiltzen den espazio, denbora eta materiala ikasle mota batentzat eginda egon ohi da, eta horrek pobrezia eta indarkeria bezalako ondorio asko dakartza. Arian ere, aniztasuna oso presente dagoen jendarte batean; hau da, gizarte heterogeneo batean, hezkuntza molde homogeneoa aplikatzeak, molde horretan sartzera behartzen ditu hiritarrak. Horrela, eskatutako tankera horretatik kanpo dagoen oro motibazioa galdu edo presiopean jartzen da; aukera-berdintasuna barik desberdintasuna mantenduz. Gizarteko desberdintasun, hierarkia eta klasifikazio egitura desberdinak konbinatu egiten dira. Hori dela eta, pertsona bakoitzak diskriminazio mota desberdinak jasan ditzake gizartearen integratu eta garatzerako orduan. Hori formaldatu, eta guztiok

parte hartzea zilegi dugun jendarte bat eraikitzen lagundu dezakegu irakasleok; hezkuntza justu eta inklusibo bat eskainiz. Horretarako, berdintasunaren aldeko tresna eta eredu berriak ezagutu behar ditugu; tartean, hezkidetza.

Lan hau lau zati desberdinetan banatuta dago. Hasierako atalean, hezkidetza ulertzeko eta haren beharrezko zergatia konprenitzeko historian zehar gizartean emakumeari eman zaion indarkeria tratua azalduko da. Horrekin batera, desberdintasun harreman horiei aurre egiteko erresistentziak definitu zituen hainbat kontzeptu ulertaraziko dira: generoa, sexua, sexu/genero sistema binarioa eta sistema heteropatriarkatua. Behin hezkidetzaren parte diren mugimendu eta kontzeptuak adituta, hezkuntza atalean daukan funtzioa adieraziko da, hezkuntza harremani leku eginez. Horretarako curriculum ezkutua eta hezkuntza lege hezkidetzagilea bezain sail garrantzitsuak aitatuko dira. Aurretiazko atal honi, marko teorikoa deitu zaio. Bigarren partean, jada, aurretiazko zatian aditutako teoria praktikara pasako da ikerketa bati leku eginez. Ikerketa honen helburu nagusia Bizkaiko hezkuntza zentroen errealitatea ezagutzea izan da, genero berdintasun ikuspuntu batetik, eta Bizkaiko gaur egungo gazteen hautaketa askea den edo sexismoan oinarrituta dagoen antzematea. Hirugarren tartean ikerketa nola egin den azalduko da; batetik, galdetegia egin delako Bizkaiko Lehen Hezkuntzako eskola guztietan eta, bestetik, behaketa bat gauzatu delako Bizkaiko unibertsitateen matrikulazioari begira. Bukaeran, ikerketa lanean lortutako emaitzen ondorioak ateratzen dira; hezkidetza eta genero berdintasunari zentzua emanaz.

2. MARKO TEORIKOA

Hezkidetza autore askok aztertu izan duten gaia da, hona hemen hezkidetzaren definizio bat Beatriz Ugarte Maiztegiren (s.d) eskutik:

Hezkidetza ezagutza feministak hezkuntzari egindako ekarpena da, generoen eraikuntza zalantzan jarriz. Proposatu duen helburua mekanismo baztertzailleak pixkanaka desagertzea da, eskolaren egitura formalean ez ezik, hezkuntza ideologian eta praktikan ere bai.

Gizonen kulturatzat eta emakumeen kulturatzat jotzen direnetatik alderdi on guztiak berreskuratu eta neska-mutilen giza garapena bultzatzeko portaera erreferente bihurtu nahi ditu, neska-mutilak norberaren nortasunaren subjektu aitortuta, genero-estereotipo sexistetatik at. (Ugarte, s.d.) Beraz, ondorioztatu daiteke, hezkidetzaren bitartez genero-ikuspegitik jendartean egunero eta betidanik sortu eta errepikatzen diren diskriminazioak detektatu eta lantzen dira; pertsonen artean parekidetasun harremanak gutxika sustatu eta normalizatzeko.

2.1 Hezkidetza ulertzen

Hezkidetza bere osotasunean aplikatzeko, hezkuntza esparruan, hau, korrante feministatik datorrela jakin behar dugu. Izan ere, Ugarte, Otaduy eta Irigoyenek (s.d., 7 or.) Hezkidetzaren Alde

Busti! datu akademikoetako, Betaurrekoen Garrantzia alean azaltzen duten moduan “hezkidetzak feminismitik jasotako genero-ikuspegia hartzen du inguru hezitzaileetan errealitatea aztertzeko eta ematen diren diskriminazioak gainditzeko hezkuntza-proposamenak egiteko” (Ugarte, Otaduy & Irigoyen, s.d., 7 or.). Nahiz eta feminismoa kultura eta leku desberdinetatik eratorria egon, aldaketa helburu berdinarekin sortu izan da; emakumeak, izan ere, ezagun diren kultura orotan era batera edo bestera zapalduak izan dira, aitzitik, oraindik ere sistemak berdin jarraitzen du. Hori azaltzeko, Facio eta Friesek (2005) emakumeen menderakuntzaren unibertsaltasuna aipatzen dute, beste hitz batzuetan horrela justifikatuz: Nahiz eta kultura guztietan emakumearen zapalkuntzaren konplexutasun gradua desberdina izan, historian zehar ezagun ditugun kultura guztietan gauzatu izan da, eta oraindik ere indarrean dagoen sistema da.

Hezkidetzaz ulertzeko eta hezkuntza esparruan kokatzeko, beraz, lehenengo horren parte den korrante feminista ulertu beharra dago. Izan ere, gaur egungo sistema heteropatriarkatua erdiesten lagunduko digu, eta etorkizunera begira berdintasunean oinarritzen diren identitateak eraikitzen. Gaur egun hain barneratua dugun sexismoa antzemateko, historian zehar zapalkuntza pairatu behar izan duten biktimek eraikitako berdintasun eta justizia ikuspuntuaren berri jakin behar dugu. Hurrengo lerroetan saiatuko gara aipatutakoa azaltzen, eskola hezkidetzagilea hobeki ulertu ahal izateko. Hortaz, ondoren feminismoaren historia eta hori lotutako kontzeptuak aipatuko dira (Facio & Fries, 2005).

2.1.1 Historia pixkat

Historia ikusi eta ulertzeko modu asko daude, izan ere, leku, ideologia zein kultura desberdinetatik fokatuta bestelakoa izan daiteke. Hala nola, Emakunde (s.d.) deituriko erakundea “berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituen erakunde bat” (Emakunde, s.d.) izanik herritarren eta administrazioaren arteko Internet bidezko komunikazio zuzeneko kanaletik; Irekia, 2015ean publikatu zuten bideoan oinarrituta, honela uler dezakegu feminismoaren historia.

Iraultza Frantsesaren garaian (1789-1799) sortu zen gaur egun deritzogun feminismoaren lehen olatua. Garai horretan, hiritarren eskubideen deklarazioa onartu zen, alabaina, ez ziren emakumeenak kontuan hartzen. Printzipio horiek emakumeentzat ere izan behar zutela aldarrikatu zuen Olympe de Gouges idazle frantsesak 1791an Hori egitearren, gillotinatua izan zen. 1792an, emakumeen eskubideen aldarrikapena idatzi zuen Mary Wollstonecraftek; gizon eta emakumeentzako hezkuntza justu eta berdintasunezko baten errebindikazio gisa. Kontzientziaketa horrek bidea ireki zuen, emakumeek bizitzeko modu berri bat eraikitzeko, zalantzan jarriz haien jarrera pasiboa. Gerora, feminismoaren bigarren olatua sortu zen: 1848ko emakume sufragisten mugimendua Estatu Batuetan. Laurogei urte pasa behar izan ziren emakumeen boto eskubidea onartu, eta haiek ere bozkatu ahal izateko. Mugimendua, mundu osorantz zabaltzeko, Ingalaterran, esaterako, 1927 urtean sortu zen. Espainiako estatuan, aldiz, 1931ko urriaren 1ean,

bigarren errepublikako lege-erreformen esparruan, Clara Campoamor alderdi erradikaleko diputatuak emakumeen sufragio-eskubidearen defentsa sutsua egin ondoren. 1939an gerrak iritsi zirenean, aurrerabide horrek paralisia izan zuen (Emakunde, 2015).

Betty Friedamek 1963an publikatutako *Feminitatearen Mistika* deituriko liburu ideologikoak, hirugarren olatu feministari hasiera eman zion; emakume hiritar berriak mendeko posizioetan eta lekuan mantentzeko balio handia izan baitzuen. Urte batzuk lehenago, halere, Simone de Beauvoirrek ikuspuntu feminista irekitzen duen lan bat idatzi zuen 1949an: *Bigarren Sexua* deiturikoa. Honela adierazten du plazaratutako lerroetan: “Ez da emakume jaiotzen, izatera iristen da.” (Beavoir, 1949). Esaldi honen bidez, hurrengo atalean aipatuko diren sexuaren eta generoaren kontzeptuak bereizi zituen; sistema heteropatriarkatuaren indarkeria eta zapalkuntzaren funtzionamendua ulertuz. Errealitatearen azterketari lagunduko zioten kontzeptuak eta, batez ere, hura eraldatzeko esku hartzeko aukerak ikusarazi zituen. Beraz, bi pentsalariek 60.hamarkadako feminismoari izaera ematen diote, pertsonala politikoa dela adieraziz. 1970eko hamarkadarantz joanda, feminismoak zenbait aldaketa eragin zituen balioetan eta bizimoduetan; hala nola, emakumearen askapenaren mugimendua sortzen da. Mugimendu hau, gorputzaren beraren prestutasunerako, aniztasunerako eta ugalketarako sexu-aukeraketarako eskubideari buruz kaleko protesta deigarriek bereizten dute. Hamarkada horretan, Kate Milleten sexu-politika bezalako lanek analisi feministarako funtsezko kontzeptuak sortu zituzten, hala nola, hurrengo atalean azaltzen diren sistema heteropatriarkatua eta generoa (Emakunde, 2015).

2.1.2 Zenbait kontzeptu azaltzeko beharrezana

Hezkidetzaren garatzeko zailtasun eta oztopoetako bat, sexua, generoa eta sistema heteropatriarkatua bezalako kontzeptuen berri ez izatea da. Lagunartean zein hezkuntzan berba horien esanahiak argi geratzen ez direlarik, beharrezkoa deritzot kontzeptu hauen aurretiazko azalpen bat. Oraindik ere, emakumeen gaineko dominazioa normalizatzen duen gizarte batean bizi garelarik, modu ez zehatzean erabiltzen diren termino horiek konprenitzeak hezkidetzaren eta gaur egungo Hezkuntza Sistema modu aberasgarriago batean aztertzea ahalbidetzen du. Horrela, Beauvoir (1949) eta Millerren (1970) lanetan aipatzen diren terminoak azaltzen dira ondoren: sexua, generoa, sexu/genero sistema binarioa eta sistema heteropatriarkatua, hain zuzen.

Sexua

Beavoirrek (1949) sexua eta generoa bereizteko; biologikoa den horri, hau da, jaiotzen garenean giza gorputzaren arabera identifikatu daitekeen arra edo emea kontzeptuari deritzo. Giza jarrera eta horrekin lotuta bakoitzak eraikitzen duen identitateari, aldiz, genero. Hori dela eta, biologikoa eta kulturala bereizten ditu. Gaur egun, ordea, sexu-banaketa bitarraren bitartez genetikoki, fisiologikoki eta anatomikoki dagoen aniztasuna islatzen ez dela adierazten dute autore askok, tartean, *Revista de Psicología* aldizkariko *Los Cuerpos Del Sistema Sexo/género: Aportes*

Teóricos De Judith Butler alean, Martínezek (2011, 132 or.) adierazten du : “Sexuaren banaketa binario horrek dimentsio biologikoan beti aurkitu daitekeela emakumeen eta gizonen arteko bereizketa bat esan nahi du” (Martínez, 2011, 132 or.). Baieztapen horretatik abiatuta, Galarragak (2015) Bi Sexuen Sailkapenaz Harago artikuluan sexua XX (emea) eta XY(arr) kromosomek definitzen dutela aipatzen du. Baina, nahiz eta kasu gehienetan hala izaten den, batzuetan, errealitatea bestelakoa izan ohi da. Errealitate hori, gainera, ustez baino ohikoagoa dela aldarrikatzen du Raffiok (2019) bere Sexu Bitarraren Mitoa gainditzen izendaturiko artikuluan. Autoreak “hirurogeita sei gizabanakotik bat bere hormona-ekoizpenari eragiten dion sortzetiko akats batekin jaiotzen” dela adierazten du (Raffio, 2019).

Ezarrirako dikotomia anatomikoetatik urruntzen diren gorputzei, hortaz, intersexuala deritze. Hala nola, Galarragak (2015) bere artikuluan argi azaltzen du: “Havelock Ellis eta Magnus Hirschfield izan ziren intersexualitatearen kontzeptua landu zuten lehen sexologoak, eta, haien arabera, gizonezkoek zein emakumezkoek, denok ditugu bi sexueta ezaugarriak, eta horrek sortzen du aniztasuna” (Galarraga, 2015). Edo, *Intersex Society of North America* web orrialde ofizialean (2008) honela definitzen da: “Intersex termino orokorra da, eta hainbat baldintzatan erabiltzen da. Baldintza horietan, hala nola, pertsona bat ugalketa- edo sexu-anatomiarekin jaiotzen da, zeina emakumearen edo gizonaren ohiko definizioan ez den sartzen” (Intersex Society of North America, 2008).

Generoa

Generoa, Beauvoirren (1949, 54 or.) arabera, gizarteak definitutako jarrera multzo bat da; zeinak pertsona bakoitzaren izaera konfiguratu duen. Gizarteak inposatutako jarrera multzo horiek, ordea, oso polarizatuak daude horregatik bereizten dira identitate femenino eta maskulinoa. (Beauvoir, 1949, 54 or.).

Generoa, beraz, Coral Herrera Gomezek (s.d.) argi azaltzen duen moduan, estereotipo eta rolei lotutako eraikuntza sozial eta kultural bat da: “Mendebaldeko gizarteetan, pentsaera bitarrear oinarrituta egonda, gizateria bi talde handitan sailkatu nahi izan dugu: maskulinoak eta femeninoak, printzipioz aurkakoak, izaeraren, portaeraren, itxura fisikoaren... arabera bereizirik” (Herrera, s.d.). Errealitatean, ordea, pertsona bakoitzak sentitu dezakeena gizon eta emakumearen definizio sinplista eta itxitik haratago doa. Hori dela eta, bakoitzak sentitu eta adierazi daiteken modua askotarikoa izan daiteke; hau da, gizarte batek gizon eta emakume baten inguruan dauzkan definizioak irekitzen badira, erdian hainbat tankera ezberdinetako izaera eta jarrerak daudela ikus daitezke. Horrela, LGBTQ+ komunitateak femenino eta maskulinoren artean dagoen aniztasuna islatzen du; lesbiana, gay, bisexual, transgénero, transexual, trabesti, intersexual, queer eta taldean sartu ez direnak irudikatzen duen taldea izanik (Lorente, 2021).

Sexu/genero sistema binarioa

Generoaren atalean aipatu bezala, haren eraikuntza gauzatzerako orduan, sistema dikotomikoa edo binarioa erabili dela esaten da. Eraikuntza hori, esan bezala, kulturala da; hau da, gizakiak sortutakoa. Eta sistema dikotomiko hori ez dago ezarria beste barik; aitzitik, gizonezko heterosexualaren ustezko mesederako baino. Horrela izanik, gizartean on edo egokitzat hartutako jarrera, balore eta praktikak “gizoneko”arekin lotutakoak izan dira betidanik. Beraz; generoak polarizatutako bi rol multzo izanik, “gizonezkoa” positibo bada, “emakume” izate horrek karga negatibo bat dakar. Hala nola, generoen polarizazio hori definitu eta gizonezkoarena egokitzat hartzen duen kultura horri, kultura dominatzailea edo heteropatriarkatua deritzogu. Kultura horrek, inposatzen dituelako “gizon” eta “emakume” izatea zer diren eta bakoitzak gizartean dauzkan eskubide eta betebeharrak (Facio & Fries, 2005).

Emakumeak karga negatiboa izateak zer ondorio dakartza harengan?

Emakumeak, zaintza, arduraren... eta gizonaren inguruan zentratutako bestelako ezaugarriak biltzen dituelarik, haren izateak pasibo forma hartzen du gizartean; horrela, erabakiak eta aldaketak egiteko parte hartzerik ez daukan objektu bilakatuz. Hori dela eta, protagonismoa eta harreman aktiboak gizonezkoak hartzen dituelako, aldaketa eta hitzaren boterea ere berak hartzen du: “logika bitarra eta baztertzaila, gizonen eta emakumeen arteko botere-banaketa modu ez-ekitatiboan antolatzen duena da” (Martínez, 2011, 129 or.)

Ugarte, Otaduy eta Irigoyenek (s.d., 4 or.) Hezkidetzaren Alde Busti! datu akademikoen, lkusezinak Protagonista Bihurtzen alean botere eta autoritatearen inguruko erlazioaz hitz egiten dute; adieraziz, nola gizartean botere banaketa ez ekitatiboa egoteak, banako bakoitzaren botere eta autoritate eskubidea diskriminatzen duen. Boterea ez da berez edukitzen den zerbait, ez da zerbait estatikoa, harreman sareari dagokion zerbait baizik, hartu-emanetan, taldean sortzen dena. Autoritatea, aldiz, besteek ematen dizutena da, boterea garatzeko ezinbestekoa izanik. Taldean parte hartzeko aukera eman eta motibatzeak eramango gaitu autoritatea izatera eta horrek, berriz, boterea eta gure bizitzaren jabe izatera (Ugarte et al. s.d.). Ondorioz, konkluditu dezakegu emakumeari eremu desberdinetan parte hartzeko aukera eta motibazioa eskaintzea ezinbestekoa dela, hark bere protagonismoa har dezan gizartean eta horrekin batera boterea izan dezan.

Generoa “berezkoa edo biologikoa” izateak zer dakar?

Sexu eta generoa berdinak direla uste izateak gizonezkoaren indarkeriak jatorri berezko edo natural bat daukatela onesten da. Izan ere, honi, hain zuzen, indarkeria sinbolikoa deritzo; eta menpekotasunean oinarritutako kategoria sinboliko hauek pertsona baten berezko ezaugarri direla automatikoki ondorioztatzean oinarritzen da, banakoen arteko hierarkizazioa eta botere banaketa ezberdina; eta horrekin batera, indarkeria ekarriz. Hortaz, indarkeria sinbolikoaren eraginez

biktimek haientzako onak ez diren jarrerak (beraienak zein besteenak) “natural” gisa onartzen dituzte, gauzak horrelakoak direlako eta ezin direlako beste moduan izan; are gehiago, “indarkeria sinbolikoak emakumeek beraiek egoera libreki aukeratu dutela sinestera eramaten ditzake” (Ugarte et al. s.d., 5 or.). Horrela, ikus daiteke gizonezkoaren pribilegio eta boterea mantentzen direla eta emakumearen kontrako indarkeria eta zapalkuntza legitimatzen direla.

Sistema heteropatriarkatua

Patriarkatua sexu eta generoaren ikuspuntu dikotomiko eta sinplifikatutik sortzen den sistema da; zeinak pertsona bakoitzaren izaera askatasuna baldintzatzen duen, emakume eta gizonen artean ordena sozial hierarkizatu bat inposatzen duelako. Indarkeria sinbolikoren bitartez sortutako botere desoreka harremanak gizonezkoaren pribilegio eta boterea mantentzen ditu, baita,aldi berean, emakumearen zapalkuntza eta haren kontrako indarkeria oro ere. Patriarkatua honela definitzen da Asiloari Buruzko Hiztegian: Patriarkatua eremu instituzionalizatuko sistema bat da, emakumeen eta gizonei eta ‘maskulino’ denari dagokionez ‘femeninotzat’ hartzen den oren mendekotasunari eta ikusezintasunari eusten diona, eta horrela ‘sexu biologiko’ jakin bateko kide izatean oinarritutako egitura-desberdintasuneko egoera sortzen da.

Familian du jatorri historikoa, familiaren buru aita izanik, eta ordena sozial osora zabaltzen da (Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin, s.d.).

Izaera polarizatuen banaketa oinarritzat duen ordena sozial hau, ezin liteke mantendu, ordea, erregimen eta araurik gabe. Horregatik, patriarkatuaren barruan, heteronormatibitatea eta gizontasun hegemonikoa aurki ditzakegu, zeinak botere eredu bakar bat inposatzen duen; gizonezko heterosexularena, hain zuzen. Beatriz Gimeno (s.d.) honela definitzen du heteronormatibitatearen kontzeptua: Heterosexualitatea sexualtasun ‘normal’, natural eta onartu bakarra izatea inposatu duen gizarte eta kultura erregimena da heteronormatibitatea, baina horren korrelatua ere bada: heterosexualak ez diren pertsonen jazarpena eta bazterketa Gimeno (s.d.).

Aldiz, Josetxu Rivere Arandak (s.d.) honela ematen du aditzera heteronormatibitatearekin oso lotuta dagoen gizonezko hegemonikoa: “balio, sinesmen, jarrera, mito eta jokabide jakin batzuetan oinarrituta, gizonek gizartean boterea eta agintea edukitzea ahalbidetzen duen gizontasun eredu. (...) gizontasun hegemonikoak gizartearen antolamendu patriarkala funtsatu du, eta bertan emakumeek duten mendekotasuna zuritu”.

Hortaz, inposatu eta normalizatutako bi eredu hauek gizartearen antolamendu hierarkizatuan, indarkeria harremanei luzapena ematen die, eta hortik dator bien artean sortutako heteropatriarkatuaren kontzeptua, hain zuzen. Ordena sozial horrek, ordena, harremanetan botere desorekak sortzen dituelarik, esan bezala, indarkeria sortzen da; eta honi indarkeria matxista deritzogu. Indarkeria sinbolikotik hasita, harreman desoreka hau edozein arlotan manifestatu

daiteke; hala nola ez da beti ikusteko erraza. Zumaiako Asanblada Feministak (2015) Indarkeria Matxistaren Izeberga publikazioan ilustrazio bidez argi azaltzen du nola alde batetik begi bistan dauden indarkeria manifestazioak dauden: bortxaketa, irainak, oihuak, mehatxuak, eraso-fisikoak eta sexu-erasoa; eta beste aldetik hautematen zailagoa direnak: ignoratzea, gutxiespena, erruztatzea, mespretxuak, humilazioa, txantaila emozionala, anulazioa, publizitate sexista, kontrola... eta beste horrenbeste (Zumaiako Asanblada Feminista, 2015).

Nahiz eta emakumezkoak izan zapalduak, sistema dominatzailearen kultura ez da onuragarria gizarteko inorentzat; ezta "gizonezkoentzat" ere. Gainera, hori gutxietsi eta ez ikustekak guztiok pairatzen ari garen ondorioez ez ohartzeak eta horiekin jarraitzea dakar. Facio eta Friesek (2005) sistema heteropatriarkatuaren ezaugarri eta ondorio hauek aipatzen dituzte: Batetik, produkzioa gehiegi balioztatzeak, gizarte kontsumista bat eraikitzea ekarri duela; non, balio bakarra erraz eta azkar sortzean eta erabilitako hori gastatu eta beste produktu bat izateko beharrezana izatean datzan. Horrek, naturaren ustiapena, zaintzaren gutxiespena eta beste horrenbesteko ondorioak ekarri ditu; beste hitz batzuetan, gizarte egoista eta biolento bat sortu du (Facio & Fries, 2005).

Gizarte mota horretan, beraz, nor bere burua ez besteak errespetatzen ez direlarik, ingurumen-jasangarritasunari ere kalte egiten dion funtzionamendu bat dela esan genezake: Sistema kapitalistak produkzioa baino ez du aintzat hartzen. Horregatik, lanerako prest dauden gorputz osasuntsu eta indartsuak bakarrik interesatzen zaizkio (Garcia-Uribarri, 2015).

Beraz, sexu eta generoaren kontzeptua eta baita horrekin lotuta dagoen sistema patriarkatuaren esanahia, aipatu bezala, teoria feministetatik eratorriak dira. Hau da, jakinduria, praktika eta balore iturri multzo batetik, zeintzuk emakumeen menderakuntzaren espresio, justifikazio eta formetan oinarrituta dauden. Hori dela eta, teoria feministaren atzean aldaketa nahia eta ordena sozial zein kultural berri baten beharrezana daude (Facio & Fries, 2005).

2.2 Hezkuntza sistema

2.2.1 Hezkuntzaren garapena

Pilar Ballarin Domingoren (2018) *Feminismo y Educación* artikuluan oinarrituta honela azaltzen da eskola segregatzailea: XIX. mendean emakumearen eskolarizazio prozesua hasten da. Hala ere, nahiz eta emakumeen hezkuntza ofiziala derrigorrezkoa bilakatu, hezkuntza-sistema liberalak emakumeen hezkuntza ezin zela mehatxu izan familiarentzat aldarrikatu zuen. Honenbestez, haienezako hezkuntza gizonezkoengandik desberdina izango zela adostu zen. Espainian, 1857an, lehenengo aldiz, emakumeen hezkuntza eskubidea aldarrikatu zen, Moyano Hezkuntza Legea indarrean jarritz. Lege horrek Hezkuntza Sistema modernoari eman zion hasiera. Nahiz eta hezkuntza lege honek aldaketa handiak ekarri; emakumeen hezkuntza ofiziala derrigorrezkoa

bilakatu zen lehenengo aldiz, ordura arte soilik gizonak baitzeuden, eskola emakumeentzako etxeko kulturaren ideia legitimatzen zuen lege berria besterik ez zen izan (Ballarin, 2018).

Honela ematen du aditzera Antonio Montero Alcaidek (2009) legitimatutako hezkuntza motari buruz: neskek, irakasgai batzuen ordean, sexuaren berezko lanak, lan berberei aplikatutako marrazketa elementuak eta etxeko higienaren nozio arinak jasotzen zituzten. Beraz, ondorioztatu dezakegu, eskola segregatzaileak neskak eta mutilak bereizita mantentzen zituen eskola dela, eremu fisiko ezberdinak erabili eta eduki ezberdinak garatuz sexuaren arabera. Landutako eduki horiek helburu ezberdina zuten; mutilen kasuan gune publikoetara iristeko hezkuntza jasotzen zuten, hau da, erakundeak, zerbitzua eta goi mailako karguetara, besteak beste. Nesken kasuan aldiz gune pribatuetara zuzendutako hezkuntza jasotzen zuten, hau da, etxeko eta familiaren zaintzara zuzenduta. 1870. urtean Emakumearen Irakaskuntzarako Elkartea sortu zuten eta hortik aurrera klase ertaineko lana behar zuten emakumeentzako prestakuntza desberdinak atera zituzten Pilar Ballarin Domingoren (2018) artikuluan berriz zentratuz, Espainiako bigarren errepublikarako bidean, 1909ko otsailaren 25ean, eskola mistoa agertu zela aipatzen du, non neskak eta mutilak gune fisiko berdinean erabiltzen zituzten. Gainera, 1926an batxilergoko ikasketak bi ziklotan banatu ziren, eta, hala, gero eta neska gehiago sartzen hasi ziren ikasgeletara. Oinarrizko batxilergoak Emaginaren eta Eskola Normalen ikasketetarako sarbidea emango luke, unibertsitatean sartzeko galaraziz eta emakumeei berez inposatutako espazioetara bideratuz. (Ballarin, 2018) Mendearen hasieran lehenengo esperientziak gauzatu ziren eskola mistoa eta benetako asistentzia neskenak. Hona hemen Esther Cortada Andreuk (1999) jarritako aipu azpimarragarria: 1901ean Bartzelona Eskola Modernoa. Bere bultzatzaileak, Ferrer i Guardiak, sexuen hezkidetzaren printzipioa aplikatu zuen eskola horretan.

Prozesu hori, gelditu egin zen diktadura frankistan, eta bat-bateko itzulera ekarri zuen banantze- eta bazterte-jardueretara. Frankismoan, 1939tik 1975era bitartean, Hezkuntza Sistemaren inguruan jardutean, eskolatzeko mistoa debekatua izan zen mugimenduaren printzipioen kontraketatik jotzen zelako, eta 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorrean arte ez zen onartu ikastetxe misto gehiago, arrazoi ekonomikoengatik ezinbestekoak zirenak baino. (Cortada, 1999)

Eskola hezkidetzagilearen hasiera ulertzeko, interesgarria da Amparo Blaten (1994) lanari erreparatzea, eskola mistoaren aukera-berdintasunaren eraginkortasuna azpimarratzen baitu. Eskola mistoa sortu zenean, hark jarraitzen zuen eredua, urria zen; eta hori emakumeen diskriminazioari buruzko eztabaidaren funtsezko arazoetako batzen; izan ere, berdintasun formala baino ez du sustatzen, diskriminazioa zuhurki kamuflatuz. Orduan, hezkuntzako ikerketa feminista hasten da planteatzen haurrak espazio berean elkarrekin jartzea ez dela nahikoa izatezko berdintasuna sortzeko; beraz, feminista-talde desberdinek beste urrats bat eman beharra eskatzen dute, "hezkidetzako-eskola" (Blat, 1994).

Bukatzeko, hezkidetzak eskolari buruz, Esther Cortada Andreuk (1999) bere aldizkarian ederki gogorarazten duen moduan, nahiz eta eskola mistoak mugimendu feminista defendatzen zuen ez zuen berez ziurtatzen hezkuntzan sexismoa ezabatzea. Eskola mistoarekin batera nesken hezkuntza pixkanaka gizonezkoen parametroekin parekatzen joan zen, parametro horiek unibertsalak edo neutroak direla uste izan da ordu-arte, alabaina, beharrezkoa da eskola-eredu berri baterantz aurrera egitea, bi sexuen ekarpenak eta esperientziak modu ez-hierarkikoan errespetatuko eta baloratuko dituen: hezkidetzak. 1990. urtean lehenengoz LOGSE legea irten zen, eta bertan, sexuagatiko bereizkeria-arazo bat zegoela onartu zen. (Cortada, 1999)

Gaur egun, Esther Cortada Andreuk (1999, 47 or.) dio: “gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna curriculumaren zeharkako ardatzetako bat bihurtu da, eta, hala, eskola-eremuan esku-hartze ez-sexista legitimatu da. Hala ere, mende berriak berretsi egingo du ea hartutako erabakiak planteatutako itxaropenak betetzen dituen.” (Cortada, 1999, 47 or.). Bukaerako honekin, beraz, hezkidetzak prozesuan dagoen aldaketa bat dela ondorioztatu dezakegu zeinak oraindik ere, nahiz eta hezkuntza eduki eta liburuetan eraldaketa asko sortu, berdintasunerako bidean dagoen prozesu bat da. Testuingurua ikuspuntu-hezkidetzagile batetik aztertzea garrantzitsua da, horregatik, hezkuntza-esparruko testuingurua aztertzeke curriculum ezkutuaren kontzeptua aipatzeak asko lagunduko digu azterketan.

2.2.2 Zer mezu ezkututzen ditu generoei, kulturako eta gizarteko rolei buruz curriculum ezkutuak?

Ageriko curriculumak eta curriculum ezkutua daude: Agerikoa, era kontzientean programatzen diren eduki multzoak dira eta ezkutukoak, inkontzienteki egiten den horri deritza. Miguel Angel Santos Guerrak (1996-1997) pertsona baten izaera, sentitzeko modua eta pentsatzeko forma konfiguratzeko duen elementuetako bat eskola dela aipatzen du. Hori dela eta, gure gizartean eskola kultura-ereduak sustatzeko funtsezko faktore bat da. Hala nola, sexismoa oraindik ere gure jendartearen parte delarik, eskolan islatuta ikus daiteke. Honekin lotuta, curriculum ezkutuaren eragina Fernández Enguitaren (1997) idazkian oinarrituta, honela azaldu liteke: Eskolan ez dira edukiak besterik gabe transmititzen, izan ere, indarkeria sinbolikoaren eta ikusezin diren beste arau batzuen ondorioz, curriculum ezkutuan dauden irakaskuntza-ohitura eta -estrategia batzuk transmititzen laguntzen da. Ohitura horiek, ordea, hezkuntza-harreman orori dagozkion menderatze-harremanak ezkututzen dituzte (Enguita, 1997).

Eskola hezkidetzagilea aurrera eramateko, ezinbestekoa da curriculum ezkutuaz kontziente izatea eta hezkuntza-esparruaren parte diren ohiturak zalantzan jartzea. Kultura heteropatriarkatuaren baloreak transmititzen dituzten egoerak kontuan hartzeko Miguel Angel Santos Guerraren (1990) *Curriculum oculto y construcción de género en la escuela* lana honelako taula honetan dago laburbilduta. Taula honen bidez, edozein hezkuntza-testuingururen analisia ikuspuntu

hezkidetzagile batetik egiteko aukera dago. Informazio taula hau lanaren eranskinetan dago eskuragarri, hala ere, ondoren azalduko diren kontzeptuak konprenitzeko gomendagarria da taula horretara jotzea.

2.2.3. Curriculum ezkutua eta ikasleen aukeraketak

Hezkuntzaren historian zehar, aipatu bezala, unibertsitate esparruan emakumeek ez zuten izan eskubiderik ikasketak egiteko; gainera, ikasten bazuten ere, eremu pribatura zuzendutako lanbideetarako izan ohi zen: zaintza eta laguntza. Gaur egun, emakume zein gizonek aukera daukate nahi dituzten ikasketak egiteko; alabaina, aurreko atalean Miguel Angel Santos Guerrak (1990) adierazten duen bezala, aukera gehiago emateak ez du esan nahi ikasle bakoitzaren hautuak libreak direnik.

Francisco Rivas Martinez psikologoak (1989) unibertsitateko aukerak oso baldintzatuta daudela adierazi zuen: “ikasketen hautapen-egoeraren planteamenduan, bai barne-faktoreek (nork bere burua ez ezagutzea, nerabezaroaren ezaugarri psikologikoak...) bai kanpoko elementuen edo ingurune soziokulturalak (familiako baliabideak, aukerak...) eragiten du” (Rivas Martinez, 1989). Honekin, beraz, ondorioztatu daiteke, ikasleek etorkizuneko ikasketak aukeratzeko orduan barneko zein ingurune faktore askok eragina daukatela. Aipatzen diren faktore soziokultural horiek, hala nola, hezkuntza esparruan garatzen dira neurri handi batean; Miguel Angel Santos Guerrak (1990) esan bezala, eskola kultura-ereduak sustatzeko funtsezko eremu bat baita.

Rivasek (1989) ere eskola sozializazio gune bat dela adierazten du. Bere lanean oinarrituta, esan daiteke, eskolak gure bizitzan eragin handia daukala, eskolatze prozesuaren zati handi batek, etorkizunean gizartean integartzeko balio digulako. Hori mendebaldeko kultura-ingurunean, neurri handi batean, lanaren bidez lortzen da, eta bakoitzak egingo duen lanaren prestakuntza eskola-sistemaren bidez bideratzen da.

Beraz, eskolak proportzionatzen duen sozializazio prozesuaren bitartez, kultura-ereduak transmititzen dira eta guzti hori curriculum ezkutuaren bitartez gauzatzen da. Hala nola, unibertsitateko ikasketak aukeratzeko orduan bokazioaz hitz egiten denean, honela definitzen du Rivasek (2007, 11 or.) *Conducta y asesamiento vocacional en el mundo de hoy* lanean: bokazioa norbanakoaren errealizazio-beharraz eta produktibo izateko gizarte-beharraz osatutako ideia multzo bat da; zeina bakoitzak lan munduan erabil dezaken.(...)

Bokaziozko aholkularitza irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen bidez ebazten da. Prozesu horiek ezagutzak eta esperientziak eraikitzeke jarduerak dira, eta ikaslea bizi den eskolan eta ingurunean aktibatzen dira, eskola-hezkuntzaren parte diren profesional espezializatuek lagunduta (Rivas, 2007, 11 or.). Hori horrela izanik, ez ahal da bokazioa baldintzatua, genero berdintasunaren ikuspuntutik?

Capilla Navarro Guzmán eta Antonio Casero Martínezek unibertsitate-ikasketak aukeratzeangenero-desberdintasunak (2012) ikerketan Espainiako unibertsitateetan gero eta emakume gehiago dagoela adierazten da, batez ere azken hiru hamarkadetan. Hala, gaur egun, ikasketak egiten dituzten emakumeen ehunekoa unibertsitateko ikasleak gizonezkoak baino gehiago direla adierazten dute ikerketako datuek. Eta ondorioztatzen da emakumeek gizonek baino ahalegin eta denbora gehiago ematen dutela ikasten, hau da, haiek baino urte gehiago eta proportzio handiagoan ikasten dutela. Hala ere, aldaketa datu hauek eman arren, aukeraketen barruan, sexuaren arabera, oraindik ere alde handiak daudela aditzera ematen dute adibide honekin: Ikasketa teknikoak (gizonezko gehienak) edo laguntza- edo hezkuntza-lanbideekin zerikusia duten, hala nola Pedagogia, Erizaintza edo Gizarte Hezkuntza (gehienak emakumeak dira) (Capilla Navarro Guzmán & Antonio Casero Martínez, 2012). Ikerketa honen emaitzek garbi adierazten dute, oraindik ere faktore soziokulturalen barruan genero desberdintasuna dagoela; eta ikasle bakoitzaren bokazioan ere horrek eragin handia daukala.

2.3 Hezkuntza hezkidetzagilea eta harremanak LH-n

2.3.1 Hezkidetzaren garrantzia Lehen Hezkuntzan

Zergatik da hezkidetzaren hezkuntza esparruan aplikatzea garrantzitsua?

Hezkuntza, esan den bezala, beharrezkoa da gizabanako bakoitzari osotasun eta eraginkortasunez bizitzeko behar duena prestatzeko. Baina beste eginkizun bat ere badauka; sozializazio prozesua gauzatzea, hain zuzen. Sozializazio prozesuak, hala nola, gizarte batean integratzea du helburu nagusi, horretarako, portaera-jarraibide batzuk ikasi, onartu, barneratu eta haietara egokitzen gara. Hori horrela, gizarteko elementu soziokulturalak pertsona baten nortasunean integratzen direla ondorioztatu daiteke. Prozesu hau gauzatzeko, etapa eta talde desberdinak aurkitzen dira. Lehen prozesua nerabezarora baino lehen gertatzen da, eta honek eragin zuzena dauka bigarren sozializazioan, hau da, nerabezarotik aurrera gertatzen den prozesu horretan. Umetako sozializazioaren hiru faktoreetako bat, hala nola, eskola da. Horregatik da hain garrantzitsua eskola barnean gertatzen diren harremanak osasuntsuak izatea; toxikoak edo indarkeriazkoak izanda kaltegarriak izan daitezkeelako pertsona ororentzat (Rovira-Salvador, 2018).

Hezkuntza, beraz, beharrezkoa da gizartearentzat, ezarritako ordenari eusteko eta bizirik irauteko. Eta, alderantziz, etorkizuneko gizarteko harremanak sortzeko erreminta bat da. Hori dela eta, eskolak ikasle bakoitzari pertsona bezala garatzeko eta gizartean integratzeko aukerak eskaintzen dizkion neurrian, hezkuntza zentroak momentuko gizartearen eredu dira. Dilema honi erantzuteko, Raul Navarrok (2010) espirtu kritikoa garatu behar dela esaten du, horren bitartez, pertsonentzako mingarriak ez diren ohitura eta jarrerak aldatzen saiatzeko; tartean, genero indarkeria. Bakoitzak

kritikotasun askatasun hori izan dezan, garrantzitsua da ingurune hezkidetzagile baten heztea, hau da, eskolak hezkidetzagileak izatea. Inmaculada Redondo Ranchalek (2008) esaten duen bezala, eskola edo hezkuntza sistemaren bitartez sexu eta genero bitartezko diskriminazioa gutxitu daiteke, eta aukera berdintasun bat eskaini guztiei, gizarte hezkidetzagile baten garapenari lagunduz.

Zergatik Lehen Hezkuntzan?

Lehenengo sozializazio-esperientzietako bat, eta, pertsona gehien definitzen duenetako bat generoa da. Banako bakoitzak pixkanaka bereganatzen du portaera bakoitza zeini dagokion, horrela, beren eskema kognitiboak, beren interesak eta sexu bateko eta besteko ezaugarri pertsonal "tipikoenak" garatzen dituzte. Honi sexu tipifikazioa deritzo (Raul Navarro, 2010). Prozesu honetan sortzen diren genero-eskemak sozializazio-prozesu desberdinen bidez lortzen dira, zeintzuk gizartean onartuta dauden eta ez dauden portaerak identifikatu, jarrera horiekin interakzio bat izan, horri lotutako ezagutzak garatu eta biologikoki zein fisikoki ildotuta dauden rolak antzeman (Friedman, 2007). Generoaren ikaskuntza hau jaiotzaren unean hasten da eta bizi-ziklo osoan zehar jarraitzen du. Bakoitzak arlo horretan egiten duen integrazio pertsonala zein garapen-etapatan dagoen arabera izango da, horrela, zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa izango dela gizarte-testuinguruaren eragina eta handiagoa izango dela genero-informazioarekiko adostasuna. Horregatik, plastizitateari begira zenbat eta lehenago hezkidetzak lantzen hasi, etorkizunean arazo gutxiago izango dituzte ikasleek (Raul Navarro, 2010).

Kholbergek adierazi zuen bezala, garapen morala eta intelektuala elkarrekin doazen bi aspektu dira, horregatik gure bizitza osoan zehar etapa desberdinetatik igarotzen gara. Lehen Hezkuntza, oraindik, kontuan hartuta sei etapa daudela, konbentzionaletan aurkituko lirateke ikasleak (bigarrenen). Une horretan, ondo eta txarto dagoen hori besteen arabera definitzen dute umeei, eta haien kezka bakarra jarrera ona edo eredu direnek onartzen dutena izatea da (Martin Haro, 2014-2015). Hori horrela izanik, eragin handia daukate eskolan inposatzen diren balio eta ohiturek. Gainera, adin horretan mutilek eta neskek malgutasun handiagoa dute generoarekiko jarreretan. Nerabezaroan, ordea, askoz handiagoa izan ohi da; malgutasun hori askoz handiagoa da eta genero rolak definituagoak daukate, horregatik gizarteko genero-baldintzatzaileetatik ateratzeak zailtasun handiak sor ditzake gizarte-harremanetan eta identitatea eraikitzean; isolamendua eta desegokitzapena sortuz (Raul Navarro, 2010). Eraginez, hori gertatu aurretik esku-hartzea ezinbestekoa da.

2.3.2 Hezkidetzak harremanak LH-n

Irakasleekin

Hezitzaileen funtzioa bakoitzaren aukerak ez mugatzeko hedatzen diren ohitura, eduki eta jarrerak berrikustea dela irakasleen lana, eta, horretarako, kontuan hartu behar dela garrantzia zeri ematen zaion eta zeri ez. Miguel Angel Santos Guerrak (1990) aipatzen diren aspektuak lagungarriak izan litezke irakasleek ikasleekin harremanak bermatzerako orduan hezkidetzak sustatzeko:

- Irakasleen prestakuntza: irakasleek prestakuntza on bat ez badute, ezin dituzte ikasleak era egoki batean hezitu.
- Jarrera kritikoa piztu: errealitatearen berri eman pentsamendu kritikoa garatu ahal izateko. Horrekin analisi bat egin eta hau, hezitzaileek bultzatu behar dute. Pentsaera pasibo batetik, pentsaera kritiko batera heltzeko.
- Diskriminazio positiboa garatu: Eskolan, gizartean bezala, mendeetan pairatu duen eta emakumearen oraina eta etorkizuna baldintzatu duen desberdintasuna konpentsatzeko, emakumeenganako diskriminazio positiboa garatzea ezinbestekoa da. Hau da ikasgelan mutilei bakarrik kasu egin bazaie orainarte gehienetan, nesken arrakastei nahiz jarrerari garrantzia eskaintzea.
- Emozionalki hezitu: Sentikortasuna eta enpatia garatu. Beti ere ikasleen egoera kontuan izanda. Honek, jarrera edo jokaera egokiak izatera bultzatzen gaitu.

Zentroko espazioarekin

Ikasleek zentroko espazioarekin sortzen dituzten harremanen arabera ingurune bat sortzen da. Lehen Hezkuntzako etapa honetan ingurune horretako pertsona bakoitza zein den konprenitzen hasten dira, eta bertan daukaten jarreraren arabera ze funtzio eta koordinazio betetzen dituzten (Martin Haro, 2014-2015). Hori dela eta, ariketa programatuak edo jolas librea egiten den lekuan segregazioa egoteak, gerora, segregazio automatikoa eragin dezake haiengan. Edota, espazioan burutzen diren jarduerak gizonei zuzenduta egoteak, emakumeen presentzia, parte-hartzea eta protagonismoa murrizten du. Horrenbestez, espazio hezkidetzagileak egon daitezkeen espazioaren erabilera parekidetua eta orekatua egon behar da (Euskal Herriko Bilgune Feminista, s.d.). Honekin lotuta, hezkuntza zentroetan tradizioz komun segregatuak egon ohi dira; Amelia Barquinek (2015) bere *el váter de la escuela* lanean aitatzten duen bezala, etxean konpartitutako komunak erabiltzen badira ere, zona publikoetan gizon emakumeak bereizten dituzten komunak daude. Horrela, bereizketa ere, hezkuntza esparruetan gertatzen da. Emakumeek komun itxietan egiten dituzte haien beharrianak, gizonezkoek ostera pixa tente egiten dute guztien aurrean eta gainontzekoak komun itxian. Honez gain, gizonezkoaren espazio okupazioari dedikatutako beste leku bat, jolastokietako futbol zelaiak dira. El País egunkariko Rocío Nieblaren (2021) artikuluan honela ageri da jolastokiko espazioen inguruan: Jolasa aspektu ludikorako denbora eta espazioa da, jolasa ez baita alderdi pedagogikoa bazterten duena. Jolasaldian, atsedena hartzeaz gain (ezinbestekoa da kalitatezko irakaskuntza-prozesu bat izateko), garapenaren psikologiaren guraso

handietako batek, Jean Piagetek, uste duenez, jolasak zuzenean ikasteko aukera ematen du: Hurrek ez dute jolasten ikasteko, baina jolasean ari direlako ikasten dute.

Jolastokian, hurrek beren gizarte-trebetasunak garatzen dituzte, hala nola enpatia, elkarrizketa eta afektua. Jolastokiak, beraz, futbolzentrak izanik, bertan sortzen diren harremanak ez dira parekatuak egongo, kontuan hartuta futbola kirol estereotipatu bat dela (Rocío Niebla, 2021)

Ikasleen artean; besteekin eta norbere buruarekin

Eskola, esan bezala, ikasleak elkarren artean erlazionatzeko sozializazio esparru bat da. Isabel Rovira Salbadorren (2018) sozializazio prozesuari buruzko lanean oinarrituta, esan genezake, inguruko pertsonekin harremantzeko aukerak abileziak asko baldintzatzen duela pertsona baten garapen pertsonala; beraz, elkar ezagutzea eta norbere burua ezagutzea, aldagarriak diren bi ekintza dira. Norberaren emozioez ohartzean; gainontzekoen sentimendu, pentsamendu eta jarreretatik ohartzen zara. Hori horrela, sentimenduak egoki adierazteko trebetasuna, motibazio iturriak identifikatzeko eta arreta mantentzeko adrezia, automotibatzearen gaitasuna, etab. garatzen du bakoitzak. Honez gain, enpatia ere, norberaren emozioen ezagutzan oinarrituta dago, besteekin harreman onak izateko gaitasunarekin batera.

Familiarekin

Esan bezala, sozializazio prozesuan lehenengo etapak hartzen du garrantzia. Etapa horren barruan, eskolaz aparte, familia da beste eragile garrantzitsuenetako bat. Familiak bertako identitateen prestakuntzan eragiten du. Kontuan hartuta haurtzaroko eskola baino eragile indartsuagoa dela hau, hezkuntza zentroetan sortzen diren harremanetan eragin zuzena dauka. Familiar harremanak izateko moduak eragina du familiako kideek bertatik kanpo ezartzen dituzten harremanetan, hori dela eta Lehen Hezkuntzako etapan hezkidetzaren integrazioa, familiak kontuan hartzea faktore garrantzitsu bat da (Observatorio Nacional Contra la Violencia Contra las Mujeres y los Integrantes del Grupo Familiar, 2018)

2.3.3 Gatazkak

Gatazkak banakoen artean sortzen diren egoerak dira, interes edo ideia desberdinak daudelako medio. Egoera hauei irtenbide bat eskaintzea izan ohi da helburu hezkuntza eremuetan, banakoen arteko harremanak egoera mintsurik sor ez dezan. Izan ere, gatazka bat positiboa da, beti elkar entzutea badago medio. Eskaintzen den soluzioa, ordea, ez da guztietan adostasunez lortutakoa izaten. Ondorengo jarrerak oldarkortasunarekin lotuta badaude. Josep Redortak (2012) adierazten duen bezala, gatazka guztiek daukate bere soluzioa, baina, horretarako komunikaziorako ardura hartu beharra dago. Mutil eta nesken artean askotan sortu izan ohi dira liskarrak, baita, gehienetan

mutikoen artean ere. Egoera horiek inkomunikazioak eragiten dituela kontuan hartuta, hezkidetzaren hauen soluziorako beste faktore bat da, kontuan hartuta komunikazio askatasuna errebindikatzen duela. Hezkidetzari esker gatazkak positiboak lirateke eskoletan, komunikazio eta adostasun bidezko soluzio bat lortutakoan ez litzatekelako egoera agresiboak sortuko. Honela adierazten du Mario Lopez Martinezek (2005) azalduakoa: "Gure gizarteak presa gehiegi du gatazkak konpontzeko, izan ere, indarkeria gatazkak azkar konpontzearekin lotzen da. Oстера, kontrakoa da, hain zuzen ere. Bakeak denbora motelak ditu eta oso epe luzean egiten du lan; gerrak eta indarkeriak, berriz, berehala. Bakea artisautzat hartzen da, indarkeria industrialaren aurrean. Denbora gutxiagoan gehiago produzitzea eta kostuak murriztea da kontua, baina betiere zentzu ekonomikoan, ez da kontuan hartzen pertsonen ongizatea" (Lopez, 2005) .

2.3.4 Hezkuntza hezkidetzagilearen legea

Ezkutuko curriculumaren bitartez sistema heteropatriarkatuaren indarra deuseztatzea lortu liteke, izan ere, aipatu bezala, inkontzienteki eta modu integratuan aplikatzen diren balore eta ohiturak dira; hala nola, aldaketa hezkidetzagilea ere integrala bada, aldaketa sistematiko bat egitea lortu liteke. Horregatik, atal honetan, curriculum ezkutuaren eragina kontuan hartzen duen lege berria aipatuko da. 2021ean lege berri bat atera zuten hezkidetzari begira, legea honetarako dela adierazten da: "Ebazpena, 2021eko martxoaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, EAEko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzendutako jarraibideak onartzen dituen, hezkidetzaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko jarduketarako proiektuak gauzatzeko eskaera egiteko 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako" (Eusko Jurlaritzak, 2021, 1 or.).

Azken lege hezkidetzagile honek, beste bi lege hartzen ditu kontuan: Batetik, "ematen den heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea" xedeetako bat duen 1993ko otsailaren 19an baieztatu zen legea. Eta bestetik, 2005eko otsailaren 18an plazaratu zena; "Hezkuntza Administrazioak hezkidetzaren proiektuak sustatuko ditu, eta hezkidetzaren helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean" (Eusko Jurlaritzak, 2021, 1 or.).

Hezkuntza-sisteman Hezkidetzaren eta Genero-indarkeriaren Prebentzioa Lantzeko Gida Plana eta Euskal Hezkuntza Sistemarako Hezkidetzako II. Plana, berdintasuna eta tratua lortzeko bidean jarraibideak beteko dira zeinak helburua neskak zein mutilak genero maskulino eta femeninoetik aske heztean datzan. Horrela bera banako bezala haziko da eta gizarte sexista batek eskatzen dizkien rola ez dira kontuan hartuko. Lege honen helburu nagusia, beraz, aipatutako hezkuntza-mistoaren eredutik, hezkuntza hezkidetzagile batera pasatzea da. Horretarako, esan bezala, era sistematiko eta integratuan aplikatuko da. Honekin adierazi nahi da, urte osoan zehar landuko dela eta, irakasleen % 70 edo gehiagok proiektuak garatzeko prozesuan parte hartu behar duela. Horrez gain, ikastetxe osoan zehar proiektuak aurrera eramatea ziurtatuko duen pertsona bat

egongo da: “langile finkoa, ikastetxea ondo ezagutzen duena, sentsibilizatuta dagoena, eta prozesua dinamizatzeko, koordinatzeko eta buru izateko gaitasunak dituena” (Eusko Jauriaritza, 2021, 1 or.).

Orain arte hezkidetzaren tartekako proiektu bezala landu izan delarik, ez du eraginkortasun handirik izan, plangintza hau, ordea, integrala izaterako orduan, urte osoan zehar betetzen ditu aldaketak. Jarraibide hauek 2013-2014 ikasturtean plazaratu ziren, hala nola, urtero berrogeita hamar eskolak parte hartzeko aukera izan ohi dute eta hiru aldiz bakarrik errepikatu daiteke.

3. HELBURUAK

Bizkaiko, Euskadin diren hiru probintzietako bateko, ikastetxe publiko, itunpeko eta pribatuak, genero berdintasunaren aldeko hezkuntza-tresna eta ereduak hezkuntza esparruan zer nolako eragina daukaten ikertzea da helburu nagusia.

- Curriculum ezkutuan oinarritutako galdetegi bat helaraziz Bizkaiko eskola publiko eta kontzertatu/pribatuetako errealitatea ezagutzea.
 - Hezkuntza eremuetako gabezia eta aurrerapenak detektatzea
 - Hezkuntza Lege Hezkidetzagileak daukan aplikatzearen garrantzia azpimarratzea.
 - Zentro publiko eta pribatu zein kontzertatuen hezkidetzak daukan eragina aztertzea.
- Hezkuntza ez hezkidetzagile batek ikasleen aukeraketetan daukan eragina aztertzea Bizkaiko unibertsitateetan 2019/20 ikasturtean matrikulatu diren ikasleen hautuen behaketa bat eginez.
 - Gaur egungo hezkuntzaren errealitatea, ikasleek gizartera bidean egiten dituzten aukeraketetan nola islatzen den ikuskatzea.
 - Bokazioaz lotuta, gizon-emakumeek lan mundura bidean zer motibazio iturri daukaten aztertzea.
 - Aukeraketa bakoitzaren bitartez lan mundura integratzerako orduan nolako eragina daukan analizatzea.

4. I KAPITULUA: BIZKAIKO ESKOLA PUBLIKOETAKO ERREALITATEA IKUSPUNTU HEZKIDETZAGILETIK

Bizkaiko eskola publiko eta kontzertatu zein pribatuetako errealitatea ezagutzen laguntzen du ikerketa zati honek. Galdetegi bakoitza, eskola bakoitzeko ordezkari bat arduratu da betetzen, Bizkaiko ahal den zentro guztien berri jakiteko. Erantzunak, bestalde zentro publiko eta ez publiko direnen artean sailkatu dira. Elaborazio honek hainbat atal ditu, bakoitza GrAL honen helburua betetzeko bideratua. Hori dela eta, lehenengo atalean galdetegiaren egituraketa azalduko da; lanaren prozesua eta forma ezagutaraziz. Gero, ikerketaren emaitzak plazaratuko dira eta

bukatzeko galdera guztien erantzunekin sortutako ondorioak azalduko dira. Hori dela eta hiru zatitan banatuta dago atal hau: metodologia, emaitzak eta ondorioak.

4.1 Metodologia

Ikastetxeen errealitatea aztertzen lagunduko duen galdetegi hau era desberdinetako itaunekin sortu da, bakoitzak, hezkidetzaren inguruko arlo bati erantzuten diona. Bilduko diren datuak kualitatiboak izanik, era desberdinetako itaun hauei azalpena emango zaie hurrengo zatietan; lanari eman zaion forma argituz.

4.1.1 Lagina

Ikerketaren datu kuantitatiboak biltzeko aukeratutako lagina Ikasgunean sartuta dauden Bizkaiko Lehen Hezkuntzako ikastetxeek osatu dute. Bizkaian 579 zentro daude; Lehen Hezkuntzakoak 294 ikastetxe dira; hori dela eta, gehienez 294 erantzun izan ahal zituen galdetegiak. Hezkuntza zentro horietatik 113 zentro pribatu edo kontzertatuak dira; aldiz, 178 publikoak. Oinarrizko hezkuntzako, LH-ko zentroak 294 badira ere, D ereduak dira gehiengoak; 216 konkretuki. Hori dela eta, hasieran euskarazko 216 test bidali dira zentro euskaldunetara. Aitzitik, B eta A ereduak ere kontuan hartzerako orduan gehienezko ihardespren kopurua 294ra igo da.

4.1.2 Prozedura

Ikerketa honen erantzun kuantitatiboak eskuratzeko, hamabost galdera mota desberdin sortu dira eta Google Formulario aplikazioaren bitartez, 294 zentroetara bidali dira. Hasieran D ereduaren 216 zentroetara bidali dira euskaraz idatzitako galdetegiak. Bi egin dira; bat 159 eskola publikoentzat eta bestea 57 zentro pribatu edo itunpekoentzat. Aitzitik, geroago ikerketa A eta B eruedetara zabaltzea erabaki da, hori dela eta beste bi formulario sortu dira; 19 publikoentzat eta 59 pribatu edo kontzertaturentzat. Hori dela eta, erantzunak galdera forma berdinak dituen lau formulario desberdinetatik jaso dira; guztira 85 ihardespren jaso dira. D ereduaren eskola publikoetatik 64 erantzun jaso dira, pribatu zein kontzertatuetatik 8. B eta A ereduak, berriz, pribatu- kontzertatuetako 7 eta publikoetako 4. Erantzunak antolatzerako orduan gaika banatu dira, ondorioak ateratzerako orduan, teoriarekin lotu ahal izateko. Gai horien barruan, Hezkuntza Lege Hezkidetzagilea dela eta, esan bezala, banaketa egin da zentro pribatu eta publikoen artean.

4.1.3 Tresnak

Asmatu diren galderak forma eta helburu desberdinetakoak izan dira. Hamabost itaun haietatik, hamalau test formako galdera itxiak dira: bai/ez eta emakumea/gizona erantzun zitekeenak hain zuzen. Beste biak, galdera irekiak izan dira, hori dela eta, eskola bakoitzaren erantzunak idatziz batu dira. Informazioa biltzeko Google Formulario aplikazioa erabili da, aitzitik, erantzunei forma emateko Excel aplikazioa. Ihardespren guzti hauek grafikoen bitartez irudikatu dira, gero,


teoriarekin lotutako ondorioak ateratzeko. Halatan, esan bezala, gaika antolatu dira ihardespnek. Hona hemen gai bakoitzari dagokion grafiko motak:

- **Ikastetxeen erantzunak:** Grafiko erradiala; erantzunen gehiengoa ze eskola motarena den adierazteko eta eraztun grafiko; ikerketa honen erantzun gehiengoa ze eskola motarena den kalkulatzeko.
- **Irakasleen formakuntza:** Sektore-grafikoetan adierazi dira; batik bat irakasleen formakuntza nolako den eta genero berdintasunaren inguruan nola antolatzen diren ikusteko.
- **Zentro barneko lan karguak:** Arlo honetan ikastetxeko langileek zer nolako karguak hartzen dituzten ikuskatzea da xedea; honek eragin zuzena baitauka ikasleengan. Hori dela eta, sektore diagramak egin dira lanpostuak emakume edo gizonen okupatzen dituzten ikusteko.
- **Eskolako agertokien egitura:** Ikastetxeko ingurunearen antolakuntzak ikasleen harremanetan eragin zuzena du, horregatik, antolakuntza hori sektore diagramen bitartez ikusi da.
- **Mutilen ikusgarritasuna:** Ikasleek haien artean dauzkaten harreman motak ikusteko, bi erantzun mota jaso dira: galdera itxia eta irekia. Galdera itxiari dagokionez, beraien artean segregatzen diren ala ez, eraztun diagrama baten bitartez adierazi da. Aldiz, galdera irekiko erantzunei begira; ikastetxean jarrera agresiboa ze ikasle motak daukan ikusteko barra grafiko bat egin da.
- **Hezkuntza Lege Hezkidetzagilea:** Hezkidetzeta eskoletan posible egiten duen lege hau, zenbat zentrotan presente dagoen ezagutzeko eta zentroen inizatiba kontuan hartzeko bi galdera itxi egin dira. Horiek, sektore diagrametan adierazi dira.

4.2 Emaitzak

Bizkaiko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan hezkidetzeta errealitatean nola ikusten den antzemateko, galdetegi bat egin da, zeinak genero berdintasunaren inguruko itaun horien erantzun kuantitatiboak jasotzen dituen. Hurrengo atalean, galdera bakoitzean jasotako informazioa era antolatuan aurkeztuko da; galdekizun sorta bakoitzari dagokion gaia egokitu baitzaio.

4.2.1 Ikastetxeen erantzunak



Gehien erantzun dutenak:

Ikerketarako galderak Bizkaiko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara bidali dira; hori dela eta hainbat ihardespnen jaso dira ikastetxe desberdinetatik (1.grafikoa). Gehien erantzuten saiatu den ikastetxe

mota, euskal eskola publikoa izan da. Arian ere, D eredu publikoetara bidali diren 159 galdekizunetatik 64 erantzun jaso dira; hori dela eta euskal eskola publikoetako %40ak erantzun du hezkidetzaren inguruko galdetegi hau. Bestalde, gutxien erantzuten saiatu diren ikastetxe motak; A eta B ereduko pribatu/kontzertatuak izan dira, 59 inkesta bidalitakoetatik zazpi erantzun bakarrik jaso direlako. D ereduko pribatuei dagokienez ez dira %20ra iristen, aldiz, A edo B eredukoetatik %20ak erantzun du. Hori dela eta, gehien ihardetsi dutenen artean, eredu desberdinetako eskola publikoak geratzen dira ikastolen aurretik.

Ikerketako erantzunen gehiengoa:



- D eredua, publikoak
- D eredua, pribatu/kontzertatuak
- A edo B eredua, publikoak
- A edo B eredua, pribatu/kontzertatuak

2.Grafikoa. 2021. Erantzun gehiengoa. Grafikoa. Iturria: norbera.


Azterketa hau egiteko, esan bezala, 294 formulario bidali dira. Horietatik, erantzunen gehiengoa D ereduko eskola publikoena da (2.grafikoa). Beraz, ikerketari

buruzko ondorioak ateratzerako orduan erreferente nagusia mota horretako eskola izango da. Hala eta guztiz ere, amaieran aipatu den Lege Hezkidetzagileari (2021) begira erantzunak publiko eta pribatu zein kontzertatuetan banatu dira. Hala nola, gauzatutako ikerketa lanean argibiderik zabalenak eskola publikoetakoak dira.


4.2.2 Irakasleen formakuntza:

Genero berdintasunaren inguruko plangintza:

Ba al daukazue genero berdintasunari buruzko planen bat?



3.Grafikoa. 2021. Eskola publikoak. Iturria: norbera.



4.Grafikoa.2021. Eskola pribatu/kontzertatuak. Iturria: norbera.


Zentro publiko eta pribatuen arteko erantzunak nahiko antzekoak dira genero berdintasunaren inguruko planen bat aplikatzerako orduan (3 eta 4.grafikoak). Ikus daiteke zentroak hasi direla, urtero, genero berdintasunaren aldeko jarraibideak aurrera eramaten. Zentro guztien %40ak urtero egiten duela adierazi du, baina, oraindik ere tarteka lantzen dela aipatzea adierazgarria da. Izan ere, nahiz eta %40 genero berdintasun plana aplikatzean konstantea izan; urte osoan zehar

lehenengo aldiz egin duten zentro publikoak %14 dira, eta, pribatu-kontzertatuetatik %23. Gainera, tarteka lantzen dutenak, esan bezala, asko dira; %36 (publikoak) eta %31 (pribatu-kontzertatuak). Honi gehitzeko, badira batzuk ez dutenak aurten landu, ezta urte hauetan ere; zentroen %7-%8ak.


Formakuntza jaso duten irakasleak:

Zentroko irakasle guztiek genero berdintasunaren inguruko formakuntzaren bat jaso al dute?

Jarraibide hezkidetzagileak era askotara aplikatzen dira zentro desberdinetan, horregatik, genero berdintasunaren inguruko formakuntza gutxiago jaso dute eskola publikoetako irakasleek, eskola pribatuetakoak baino (5 eta 6.grafikoak). Aitzitik, %26 dira formakuntzarik jaso ez duten irakasleak



5.Grafikoa. 2021. Eskola publikoak. Iturria: norbera.




6.Grafikoa. 2021. Eskola pribatu/kontzertatuak. Iturria: norbera.

ikastetxe publikoetan eta %9a urtero jaso dutenak. Osera, pribatu/kontzertatuetan %22ak jaso izan du urtero eta %7a ez da formatu inoiz


hezkidetzaren inguruan. Desberdintasun horretaz bereiz, bi zentro motetan ehuneko handi batean (%65-%71) irakasleek hezkidetzeta behin edo behin landu dutela nabari da.

Irakasleen formakuntza konstantea beharrezkoa ikasten duten zentroak:

Zentroko irakasleek genero berdintasunaren inguruko formakuntza jaso beharko lukete?



7.Grafikoa. 2021. Eskola publikoak. Iturria: norbera.




8.Grafikoa. 2021. Eskola pribatu/kontzertatuak. Iturria: norbera.

Hezkidetzeta arloan eboluzio beharri begira, zentro ia guztiek (7 eta 8.grafikoak) ikusten dute irakasleriaren formakuntza beharrezkoa dela;

%95-%93ak. Hortaz, gehiengoak kontzientziatuta daude eskoletan hezkidetzeta egoteko irakasleen formakuntza esentziala dela.

4.2.3 Zentro barneko lan karguak:

Gorputz Hezkuntzako irakasleak:




9. Grafikoa. 2021. Eskola publikoak. Iturria: norbera.

10. Grafikoa. 2021. Eskola pribatu/kontzertatuak. Iturria: norbera.

“Gorputz-hezkuntzaren ardatza jarduera fisikoa plazer gisa ulertzea da, eduki guztietan. Jarduera fisikoa gozamendu gisa hartuta, herritar larriak aisia modu osasungarrian ulertzeko erroak izango ditu. (...) kirol-joko bat ikasteak ikastetxean aurretik praktikatu gabeko beste kirol-joko bat ikasteko modua ere sor

dezake (...) eskolan egunero egiten denaren eta eguneroko bizitzaren arteko harremana da.” Berritzegune (s.d. 3 or.)

Beraz, esanahi hau hartuta, zentro barruan irakasle paper hau gehien betetzen duten pertsonak gizonezkoak dira alde handiarekin (9 eta 10. grafikoak). Gorputz Hezkuntzan emakumeen presentzia urria da bi zentro motetan; publikoetan %26a eta pribatu-kontzertatueta %14a. Aldiz, gizonezkoek arlo honetan %74 (publikoak) eta %86 (pribatu-kontzertatuak) okupatzen dute. Gainera, kontuan hartu genezake eskola publikoetan, %40a gizonezkoak bakarrik direla (9.grafikoa Hau da, eskola publikoetan, Gorputz Hezkuntzako irakasleen ehuneko ia erdia gizonak bakarrik dira. Eta, beste %34 ere gizonezkoen gehienak okupatzen du. Pribatu-kontzertatueta, ostera, %57 da gizonen gehingoa, nahiz eta gizonezkoak bakarrik %29 izan.



11. Grafikoa. 2021. Eskola publikoak. Iturria: norbera.


12. Grafikoa. Eskola pribatu/kontzertatuak. Iturria: norbera.

Lehen Hezkuntzako irakasleak:

Gorputz Hezkuntzako irakasleak ez bezala, Lehen Hezkuntzako ikasgeletako irakasle gehienak, ia %100 emakumeak dira gehienbat (11 eta 12.garfikoak). Itunpe edo pribatu diren zentroetan portzentaia zertxobait baxuagoa da, gehingoa %93 izanik. Hala eta guztiz ere, %3tik %7ra doa gehingoa gizonok okupatzen duten tasa.

Garbitzaileak:

Hezkuntza zentro bateko garbitzaileak, eraikin guztia garbi mantentzeaz arduratzen dira.




13. Grafikoa. Eskola publikoak. Iturria: norbera.

14. Grafikoa. Eskola pribatu/kontzertatuak. Iturria: norbera.

Pertsona horietako gehiengoa emakumeak dira (13 eta 14. grafikoak). Aitzitik, gizonetzkoen presentzia eskola publikoetan bakarrik nabari da; %3. Gainerakoak, %82 emakumeak bakarrik dira eta %15 nahiz eta emakumeak izan gehienak, gizonetzko bat edo beste ageri da (13.grafikoa). Pribatu-kontzertatuetan ere datuak oso antzekoak dira; nahiz eta emakumeak bakarrik %79 izan, gehiengoa ere %21 dira (14.grafikoa).

Zuzendaria:



15. Grafikoa. Eskola publikoak. Iturria: norberea.


16. Grafikoa. Eskola pribatu/kontzertatuak. Iturria: norberea.

“Denak dira beharrezkoak eta ez dago bat bestea baino garrantzia handiagoa duenik, baina eskolaren baitan zuzendaritzak funtzio edo ardura berezi bat hartzen du, sistema osoa martxan jartzeko erantzukizuna baitauka: irakasleria koordinatu, familiekin hartu-emana eraiki, instituzioekin erlazioan egon, arautegia landu...” (Hik hasi, 2019).

Aurreko grafikoak erreparatuz Lehen Hezkuntzako zentroetako langileen ehuneko handi bat emakumeak dira. Baina, zeinek administratzen du ikastetxea bera? Zentro publikoetan (15.grafikoa) %83 emakumeak dira zuzendari, ostera, ikastoletan gizon-emakumeen %50 da ikastetxearen zuzendaritzan (16.grafikoa)

4.2.4 Eskolako agertokiaren egitura:

Ikasleen komunak:



17. Grafikoa. Eskola publikoak. Iturria: norberea.


18. Grafikoa. Eskola pribatu/kontzertatuak. Iturria: norberea.

Ikasleen komunak antolatzeko era tradizionala; neska-mutilen segregazioa, eskola publikoen %32ak mantentzen du (17.grafikoa), aldiz, itunpeko eskoletan %72ra igotzen da komunak segregatzeko era (18.grafikoa). Hori dela eta, komunaren agertokiaren inguruan desberdintasun hau nabari dezakegu eskola pribatu edo itunpeko artean; eskola publikoen %59ak jada komun mistoen erabilera daukatelako, hau da, gehiengoak. Itunpekoen aldetik, ordea, nahiz eta gehiengoak segregatuak izan, %21ak badauka komun mistoen erabilera.

Futbol zelaia:

Futbol zelaiak espazio handia okupatu izan du zentro askotako patioetan; eta futbola mutilentzat estereotipatutako kirol bat delarik; harremanen trukeak moztu egiten dira. Jolastorduko espazio fisiko gehiengoa mutilek okupatzen badute, neskak, segregatuta, horren inguruan jartzen dira

aktibitate pasiboagoak eginez. Hala nola, egitura horrek Lehen Hezkuntzako neska-mutilen artean harreman sexitak sortzea eragiten du. Hau, izan ere, egunero errepikatu izan ohi delako. Horregatik, galdera hau sartu da Bizkaiko Lehen Hezkuntzako eskola eta ikastola guztietara bidali den galdetegietan: futbol zelaiak okupatzen al du patioko espazioa? Zentro publikoen %51ak ezetz erantzun du (19.grafikoa), eta beste ikastetxe moten %57ak (20.grafikoa). Hala eta guztiz ere, baietza oraindik ere %37 da publikoetan eta %36 pribatuetan.




Patioko egitura:

Patioan aukera ez estereotipatuak egin daitezkeen gunek daude?

Futbolaz bereiz, badaude beste hainbat jarduera estereotipatu. Hori dela eta, horiek betetzen ez diren gunek badauela ikus daiteke zentro guztietan (21 eta 22.grafikoak). Publikoetan, hala nola, %80 a dira, eta besteetan guztiak.


4.2.5 Mutilen ikusgarritasuna eta ikasleen arteko harremanak:

Ikasleen arteko harremanak:




Patioan neska-mutilak elkarrekin jolasten dira gehienetan? Ikasleen gehiengoa pertsonaren sexu eta generoa kontuan hartu gabe erlazionatzen dela ikusi da (23 eta 24.grafikoak). Hala eta guztiz ere, badago oraindik %40 inguru bat segregatuta mantentzen direnak harremantzerako orduan. Ikastoletan segregatzen diren ikasleak %10 gehiago dira.

Jarrera txarratik irekitako espedienteak:



Eskoletan jarrera txarragatik irekitako espedienteak aztertu dira, mutilen ikusgarritasuna eta ikasleen jarrera agresiboa nork hartzen duen detektatzeko. Eskola publikoetan, mutilak bakarrik izan dira espedientea irekita dutenak %15ean eta gehiengoak mutilak %45eko kopuruan (25.grafikoa). Beraz, guztira %55 dira espedientea irekita duten mutilak. Bestalde, neskek bakarrik %2 dira eta gehiengoak neskek diren eskolak %4. Hortaz, guztira %6 dira gehiengoak neskek diren eskola publikoak. Aldiz, eskola pribatu zein kontzertatueta mutilak %27 inguru dira jarrera agresiboa daukatenak (26.grafikoa), eta %36 mutilen gehiengoak espedienteak dauzkana irekita. Hori dela eta, %63ak okupatu du mutilen jarrera txarraren lekua. Nesken aldetik, itunpeko ikastetxe batek ere ez du jarri gehiengoak direnik. Hortaz, bi zentro mota hauek, ikus daitezke desberdintasun handia dagoela ikastetxeko autoritateari aurre egiten dien ikasleen inguruan; arean ere, mutilak dira bi ikastetxeetan protagonismo hori hartzen dutenak. Espedienteekin jarraituz, bi zentro motetan ematen da aditzera %15-%20 parekide direla, hala eta guztiz ere ehuneko txikiagoa dira %55 eta %63aren aldean. Ostera, badago %10 bada ere jarrera txarragatik espedienterik ireki ez dituzten eskola eta ikastolak.

4.2.6 Hezkuntza Lege Hezkidetzagilea:




27. Grafikoa. Eskola guztiak. 2021. Iturria: norbera.


Hezkuntza Lege Hezkidetzagilea ezagutzen duten zentroak:

Zentro guztiek, orokorrean ezagutzen dute Hezkidetzaren jarraibideak hezkuntza esparruetan inplikatu nahi dituen legea. Hala eta guztiz ere badira %10 bat inguru oraindik ere ez dutenak jaso horren berririk (27.grafikoa)

Legea aplikatzea beharrezkoa ikusten duten zentroak:



28. Grafikoa. Eskola publikoak. 2021. Iturria: norbera.



29. Grafikoa. Eskola pribatu/konzertatuak. 2021. Iturria: norbera

Hezkuntza hezkidetzagile bat aplikatzeko legedia ikastetxe guztiek ikusten dute beharrezko %90ean (28 eta 29.grafikoak). Hala eta guztiz ere COVID-19aren pandemiak badirudi lehentasunak markatu dituela zentroetan; horregatik hezkidetz

plana hain larria ez dela edo prest ez daudela adierazten du %10ak.

4.3 Ondorioak

Ikastetxeek hezkidetzera era integralean eta sistematikoan lantzen al dute?

Hezkuntza Lege Hezkidetzagilean (2021) azaltzen den bezala genero berdintasunaren inguruko jarraibideak integral eta sekuentziatuak izan daitezten, ikastetxeko arlo guztietan eta egunerokotasunean aplikatu behar dira. Hori dela, eta urte osoan zehar lantzeak emango dio indarra hezkidetzari, eta ez tarteka proiektu bat edo beste egiteak. Genero desberdintasuna, esan bezala, curriculum ezkutuaren parte ere bada; atal hori, ohitura desberdinek osatzen dutelarik egunero lantzeak ekar zezakeen benetako aldaketa bat. Kontuan hartuta nahiz eta ikastetxeen %50 baino gehiagok urte osoko genero berdintasun planak egin, badiela oraindik ere ehuneko handi bat hezkidetzari noizean behin lantzen dutenak edo ez dutenak lantzen. Hori dela eta, esan daiteke, hezkidetzari eskoletan ez dela guztiz integrala oraindik, eta beraz, egiten ari diren aldaketak ez direla goitik beherakoak ikastetxe guztietan. Honekin jarraituz, irakasleei dagokienez; ikasleen eredu eta hezkuntza kudeatzeren arduradun direlarik, guzti haiek genero berdintasun formakuntza bat jasotzea ezinbestekoa da. Aitzitik, gehiengoak oraindik behin edo behin jasotzen du. Ondorioz, ikasleek daukaten hezkuntzan genero berdintasuna tartekakoa edo inpersonalagoa da, eta horri dagozkion baloreak ez dira osotasun batean ikastetxean sartuko. Genero berdintasuna era horretara lantzeak, jardundako guztiak esanahirik ez hartzeko arriskua dakar eta kultura hegemonikoak gainjarrita jarraitzeak. Beste era batera esanda, berdintasunaren alde egindako lanaren prozesua atzeratzea da behin edo behineko formakuntza jasotzea, bai irakasleek bai eskolak.

Nolakoa da ikastetxeen inizatiba Hezkuntza Lege Hezkidetzagilearen (2021) aurrean?

Hezkidetzaren inguruan zentroen partetik inizatiba bat egon dadin; jarraibideak zentroan aplikatzea intenzionala izan behar da, hau da, ikastetxeak planeatu eta proposatutako zerbait. Hori dela eta, hezkidetzari intenzionala dela esan daiteke eskola publiko zein pribatuetan. Kontuan hartuta %90 inguruak irakasleen formakuntza beharrezkoa ikusten duela. Horrek, gainera, bat egiten du Hezkuntza Lege Hezkidetzagilea aplikatzeko beharrezko erantzunekin, izan ere, zentro mota guztiek uste dute %90ean beharrezkoa dela eskoletan jarraibide hezkidetzagile bat aplikatzea. Lege horrek eskatzen duen zentro osoko kohesioa kontuan hartuta, intenzionaltasun honen batasuna ageri da eskola guztietan. Beste hitz batzuetan, zentroko kide guztiak daude ados lege honen inplantazioaren beharrezkoekin. Horrek, genero berdintasuneko plan bat aplikatzerako orduan irimotasuna ematen dio berdintasunaren bideko aldaketari. Aurreko hau ondorioztatzeko, ordea, kontuan hartu behar da erantzun gehienak D eredu eskola publikoetatik bildu direla; beraz, esan daiteke, inizatiba gehiengo mota horretako eskolek erakitsi dutela, besteak beste.

Helduen ereduaren egokia al da ikasleentzat?

Helduen ereduaren forma askotan ikus daiteke ikastetxeetan. Horietako bat, haien jarrerari dagokio. Zenbat eta irakasle formatuagoak egon arlo honetan, jarraia kontzientziatuago bat hartuko dute irakasleei hezterako orduan. Hori dela eta, oraindik jasotzen duten formakuntza noizbehinkakoa izanik, hutsune asko ageri dira. Esan bezala, %65-%71ak tartekako formakuntza jaso baitu

hezkidetzaren inguruan. Horrek, eragin zuzena dauka ikasgelako egunerokotasunean eta baita gatazkak kudeatzerako orduan. Aitzitik, mutilen ikusgarritasunari begira, jarrera txarragatik parte gehien ireki zaien ikasleak mutilak dira %55-%63an; kontuan hartu gabe, jarrera txarragatik neska zein mutil diren ikasleei berdintsu ireki zaien zentroak %20 inguru direla.

Irakasleekin jarraituz, haien ohitura eta jarreraz bereiz, ikastetxean dauzkaten kargu akademikoek ere genero rola definitzen dituzte inkontzienteki. Genero roletan, teoriarik aipatzen den bezala, emakume direnei zaintza, obediencia eta horrekin lotutako ezaugarriak atxikitzen zaizkio. Aldiz, gizonezkoari, ludikotasuna, indarra... Ikuspuntu horretatik abiatuta, Bizkaiko ikastetxeetan nahiz eta ia ehuneko ehunean klaseak ematen dituzten pertsonak emakumeak izan; gorputz hezkuntzako irakasle ia gehienak; %74-%86an, gizonezkoak dira. Horrela, azaldu bezala, paper ludikoa eta mugikortasun fisikoarekin lotuta dagoen, baita, espazio gehien okupatzen duen arloa gizonezkoen materialak hartzen du. Aldiz, ikastearekin lotutakoa emakumeenak. Horrez gain, ikastetxea garbitzeaz arduratzen direnak ere ehuneko ia ehuneko emakumeak dira. Honenbestez, ikasleek kargu hauek interpretatu eta inkontzienteki normalizatu egiten dituzte; berriz ere, kultura heteropatriarkatuaren arauak justifikatuz eta berdintasun prozesua atzeratuz.

Hala eta guztiz ere, ikastetxeetako zuzendaritzan emakumeen presentzia nabaria da. Horrek; nahiz eta ez justifikatu autoritatea izateko gizonezkoen besteko erraztasuna daukatela pertsona horiek, sinbolo dira genero rola apurtzeko; eta, beraz, berdintasunaren aldeko borroka eta hezkidetzaren aldeko legeak hezkuntzan gutxika eragiten ari direla ikus daiteke.

Nolakoa da ikasleen agertokia, hau da, haien harremanak sustatzeko ingurumena?

Ikastetxearen espazioaren antolakuntzak eragin zuzena dauka ikasleek haien artean harremanak eta elkarrekintzak eraikitzerako orduan. Hori dela eta, ordu libreetan haien ikastetxeko bizitza egiteko, patioa eta komunak erabiltzen dituzte tartean. Bizkaiko ikastetxe publikoetan, hala nola, komunei dagokionez, hasi dira egituraketa mistoa jartzen (%59). Horrenbestez, ikasleak ez daukate segregatu beharrik sexuaren arabera komuna erabiltzeko. Beste guztiek, ordea, antolakuntza tradizionala erabiltzen dute oraindik ere. Hori dela eta, komun segregatuak erabiltzen dituztenetatik abiatuta. Bestalde, patioari dagokionez, tradizionalki gehiengoak futbol zelaia zentrotzat edukitzean, genero rola eta ekintza estereotipatuak erreplikatzea ekarri du. Hala nola, area horretan ere aldaketak izan dira urte hauetan; eskola erdiek baino gehiagok jardura ez estereotipatuak egiteko guneak sortu dituztelako eta futbol zelaiak gain ikastetxeko jolastorduetan espazioa okupatzen duten espazioak sortu direlako; protagonismoa ikasle guztiei emanez. Hala eta guztiz ere, aldaketa prozesuan ari dela ikusten da, oraindik ere badaudelako futbol zelai hutsak diren patioak %36-%37an.

Mutilen ikusgarritasuna oraindik ere nabaria al da ikastetxeetan?

Mutilen ikusgarritasuna kontuan hartzeko, ikastetxeetan jarrera txarra izaten duen ikasleen datuak bildu dira. Jarrera txarra izateak, autoritateari aurre egitea edo banakoen artean jarrera agresiboa izateari deritzo. Hori horrela izanik, mutilak izan dira, esan bezala, ehuneko handi batean jarrera mota hori daukaten gehiengoa. Ondorioz, ikasgeletan ikasleek oraindik ere genero rolen arabera jarduten dutela antzeman daiteke; irakasleen arreta gehiago hartzen duelako jarrera mota horrek eta ikastetxean leku gehiago okupatzen duelako. Ostera, besteei leku ez egiteak espazioak dominatzea eta okupatzea dakar, berriz ere ingurukoei boterea kenduz eta indarkeria harremanak sortuz. Badira zenbait ikastetxe, %10era ez badira iristen ere parterik ireki ez dutenak. Azken hori da hezkidetzaren bitartez lortu dena, izan ere, indarkeria harremanak izatean, pertsona batzuek autoritatea agresibitatearen bitartez irabazten duten bitarteak beste banakoak indarkeria horren biktima bihurtzen dira. Parekidetasun harremanak lortzeko harreman asertiboak lortu nahi dira genero eta sexua kontuan hartu gabe. Hau da, bakoitzak bere eskubideak defendatzeko gaitasuna izatea eta besteenak errespetatzeko kontzientzia izatea; bakoitzak identitate aske bat garatzeko genero roletatik kanpo. Hori burutzeko, oraindik ere prozesu luze bat falta da, izan ere, ikastola zein eskoletan ikasleen %40 oraindik ere automatikoki segregatzen da patioan jolasterako orduan.

5. II KAPITULUA: UNIBERTSITATE GRADUEN PREFERENTZIAK GENEROAREN ARABERA BIZKAIAN

Hezkuntza ez hezkidetzagile batek ikasleen etorkizuneko ikaskuntzen aukeraketetan daukan eragina aztertzeko, Bizkaiko ikasleek 2019/2020 ikasturtean ze hautu egin duten behatu da. Ikerketaren bigarren puska honetan jaso diren datuak, lehenengo zatian ez bezala kualitatiboak dira; nolana ere, aurreko zatiaren egitura berdina dauka; metodologia, emaitzak eta ondorioak. Nahiz eta behaketa ikasleen lan mundura zuzendutako hautaketan zentratu, ondorioari dedikatutako paragrafoetan, Hezkuntza Lege Hezkidetzagileari (2021) egin zaio leku. Azken behaketa honetan, batik bat hezkuntza sistemak ezarritako eredu soziokulturalaren isla ikusarazi nahi delako.

5.1 Metodologia

Ondorengo ikerketan bildu diren datu kuantitatiboak Eustat plataforman eta BBVA fundazioan batutako informazioan errotzen dira.

5.1.1 Lagina

2019/2020 ikasturtea da azken ikasleen aukeraketen datuak erregistratu direnak. EAEn unibertsitatera joan diren ikasleen informazioa erabiliko da elaborazio honetan. Beraz, nahiz eta guztira 56 845 ikasle matrikulatu; Bizkaian 30.968 unibertsitateko ikasle egon ziren urte horretan, eta horiek hartu dira kontuan. Hori dela eta, 30.968 ikasleren aukeraketak erreparatu ahal ditugu.

5.1.2 Prozedura

Lan mundura bideratzeko unibertsitateetik 2019/2020 ikasturtean pasa diren ikasle kopuruaren lagina aztertzeko, Eustat web orrialdean EAEko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleen datuak bildu dira; titulazioaren gradu-ikasketetan, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera banatuta daudenak. Bizkaiako ikasleriari so eginez, karrera bakoitzeko zenbat emakume eta zenbat gizon dauden aintzat hartu da. Informazio horrekin, Excel aplikazioaren bitartez karrera bakoitzean sexuaren araberako zer portzentaia dagoen neurtu da; era horretara, ikas-gune estereotipatuak detektatzeko. Ondoren, ikasketak multzoka sakabanatu dira, gizartean bakoitzak hartzen duen funtzioa aztertzeko, gero, barra grafiko bat egin da Excel bitartez. Honi atxikita, ikasleak sexu bidez banatu dira, eta talde bakoitzean gehiengoak zer aukeratu duen kalkulatu da. Horrela, gizarte arlo estereotipatuak detektatzeaz gain, gizon-emakumeek hautatzeko zer tendentzia daukaten ikusi da. Bukatzeko, BBVA fundazioak publikatutako estatistikak erabili dira, hautatutako ikerketa laginak laneratzean izango zuen irabazien batz bestekoa kalkulatzeko. Hortaz, parekidetasun gutxienerako ikasketak hautatu dira eta emakume zein gizon gehiengoa diren multzo horretako batz bestekoa atera da; talde bakoitzak kotizatzen duena eurotan ikusteko. Parekidetasun gutxiko multzo horiek %70 baino gehiago diren karrerekin egin dira eta piramide grafiko baten bitartez aditzera eman da.

5.1.3 Tresnak

Ikerketa era sinple batean deskribatzeko, honelako bi aldagai hauek hartu dira kontuan: sexua eta aukeratutako unibertsitate karrera. Kontuan hartuta, 30.968 ikasleren datuak erabili direla, lagin-kopurua, ehunekoetan aditzera eman da. Ehuneko hauek handienetik txikienera sailkatu dira; era horretara, emakume portzentaia handiagoa duten ikasketak eta gizonezkoen portzentaia handiagoa duten ikasketak detektatu ahal izan dira.

Hurrengo adierazpidea gauzatzeko, unibertsitateko karrerak gizartean daukan funtzioaren arabera multzokatu dira eta elkartutako barra grafiko baten bitartez adierazi dira. Azken hau, ikasle bakoitzak aukeratutako ikasketak gizarte mailan zer nolako eragina daukaten ikusteko erabili da eta baita, arlo desberdin horietan genero parekidetasuna aztertzeko. Gero, sexuaren arabera banatu dira ikasleak eta talde bakoitzean gehiengoak zer aukeratu duen adierazi da diagrama erradial batetan. Horretarako, *CentosUniversitarios* orrialdeko informazioan oinarritu da. Hauek dira multzoak:

- **Arteak eta Giza zientziak:** Hizkuntza modernoak eta kudeaketa, Ikasketa ingelesak, Hizkuntza modernoak, Espainiar hizkuntza eta literatura, Arteak, Sorkuntza eta Diseinua, Hizkuntza eta Euskal Kultura, Euskal filologia, Artearen historia, Filosofia, Humanitateak.

- **Zientziak eta Informatika:** Biokimika eta biologia molekularra, Biologia, Bioteknologia, Kimika, Matematikak, Ingurumen-zientziak, Geologia, Fisika, Politika eta administrazio zientzia, Geografia eta historia.
- **Gizarte zientziak eta zuzenbidea:** Publizitatea eta harreman publikoak, Nazioarteko harremanak, Lan erlazioak eta Giza baliabideak, Herri Administrazioen Zientzia Juridikoak, Antropologia soziala eta kulturala, Zuzenbidea, Lan-erlazioak, Marketinga, Ikusentzunezko komunikazioa, Soziologia, Kazetaritza, Enpresa zuzendaritza eta -administrazioa, Kriminologia, Fiskalitatea eta Herri administrazioa, Negozioen kudeaketa, Enpresa kudeaketa eta marketina, Zientzia politikoa eta Kudeaketa publikoa, Finantzak eta Aseguruak, Ekonomia, Buruzagitza, Ekintzailea eta Berrikuntza, Filosofia, politika eta ekonomia.
- **Hezkuntza:** Haur-hezkuntza, Pedagogia, Gizarte-Hezkuntza, Lehen Hezkuntza.
- **Ingeniaritza, eraikuntza eta industria:** Industri Antolamenduko ingeniaria, Ingeniaritza kimikoa, Ingurumen Ingeniaritza, Diseinu Industrialeko Ingeniaritza, Ingeniaritza Zibila, Industria teknologiarren Ingeniaritza, Meategietako teknologiarren eta energiaren Ingeniaritza, Telekomunikazio Ingeniaritza teknikoa, Komunikazio teknologien Ingeniaritza, Ingeniaritza elektrikoa, Ingeniaritza elektronikoa, Industria teknologien Ingeniaritza, Ingeniaritza nautikoa eta itsas garraioa, Elektronika industrialeko eta automatikoko Ingeniaritza, Informazio teknologien ingeniariatza, Kudeaketa eta Informazio Sistemak Ingeniaritza Informatikoa, Ingeniaritza mekanikoa, Informatika-ingeniariatza, Itsas Ingeniaritza.
- **Osasuna eta zerbitzu sozialak:** Erizaintza, Psikologia, Gizarte-lana, Medikuntza, Odontologia, Fisioterapia.
- **Gizarte zerbitzuak:** Turismoa, Kultur ondasunen zaintza eta zaharberritzea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak.

Bi adierazpide hauek eraikitzeke, Eustateko informazio edukia eta taula zein grafikoak sortzeko Excel aplikazioa erabili dira. Azken ikusketa egiteko, BBVA fundazioak 2019an publikatu zituen datuak erabilia; Bizkaiko ikasleek; parekidetasun gutxieneko karreretakoak, hain zuzen, laneraterako orduan zer nolako irabaziak izango zituzten kalkulatu da eurotan. Hori adierazteko, piramide formako grafiko bat sortu da Excel bitartez.

5.2 Emaitzak

5.2.1 Emakume/gizon portzentaia handiena daukaten ikasketak

Unibertsitateko ikasketak derrigorrezkoak ez direlarik, sexuen araberrako ikasle kopurua behatzea esanguratsua da lan mundua genero ikuspegitik aztertzeke. Izan ere, batxilergoa bukatutakoan notak edozein direlarik ere, ikasle bakoitzak aukeratzen duen karrerak haren etorkizuneko lana, eta horrekin batera bizitza, baldintzatuko ditu. Hala nola, Eustatek Bizkaiko unibertsitateetan

matrikulatutako emakume kopurua 17.023 dela adierazten du; gizonena, aldiz, 13.945, hau da, zenbateko baxuagoa. Begibistakoa da, beraz, unibertsitate mailako partaide gehiengo emakumezkoa dela eta oro har, emakumezkoak hezkuntza mailan arrakasta gehiago edo kalifikazio hobegoak izaten dituztela. Hala eta guztiz ere, nahiz eta emakume gehiago unibertsitatera pasa, egin dituzten aukeraketak esanahitsuak izaten jarraitzen dute hezkuntza sistemarentzako. Arian ere, historian zehar emakumeek izan dituzten aukerak kontuan hartuta, haien presentzia falta errepikakorra nabari da gizartean rol aktiboa hartzen duten esparruetan (1.Taula).

	Emakumeak	Ehunekoak		Gizonak	Ehunekoak
Haur-hezkuntza	858	89%	Euskal filologia	2	100%
Pedagogia	58	83%	Itsas Ingeniaritza	91	90%
Hizkuntza modernoak eta kudeaketa	137	83%	Informatika-ingeniaritza	305	89%
Erizaintza	551	81%	Ingeniaritza mekanikoa	689	85%
Kultur ondasunen zaintza eta zaharberritzea	170	81%	Kudeaketa eta Informazio Sistemak Ingeniaritza Informatikoa	251	83%
Psikologia	987	80%	Informazio teknologien ingeniaritza	19	83%
Gizarte-lana	352	79%	Elektronika industrialeko eta automatikoko Ingeniaritza	507	82%
Ikasketa ingelesak: hizkuntza, literatura eta kultura	86	76%	Ingeniaritza nautikoa eta itsas garraioa	76	78%
Hizkuntza modernoak	159	75%	Industria teknologien Ingeniaritza	14	78%
Turismoa	155	75%	Ingeniaritza elektrikoa	149	78%
Gizarte-Hezkuntza	673	74%	Ingeniaritza elektronikoa	192	77%
Publizitatea eta harreman publikoak	415	74%	Humanitateak	21	75%
Nazioarteko harremanak	302	73%	Komunikazio teknologien Ingeniaritza	3	75%
Medikuntza	1347	73%	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak	399	73%
Espainiar hizkuntza eta literatura	67	73%	Telekomunikazioingeniaritza teknikoa	285	73%
Artea	422	73%	Geografia eta historia	141	73%
Artearen historia	118	72%	Meategietako teknologiaren eta energiaren Ingeniaritza	59	72%
Sorkuntza eta Diseinua	291	71%	Politika eta administrazio zientzia	47	71%
Odontologia	127	71%	Fisika	345	71%
Lanerlazioak eta Giza baliabideak	381	69%	Industria teknologiaren Ingeniaritza	1007	70%
Biokimika eta biologia molekularra	133	69%	Filosofia, politika eta ekonomia	54	70%
Hizkuntza eta Euskal Kultura	42	69%	Filosofia	62	68%
Fisioterapia	153	67%	Ekonomia	351	64%
Herri Administrazioen Zientzia Juridikoak	27	66%	Ingeniaritza Zibila	178	62%
Antropologia soziala eta kulturala	56	65%	Finantzak eta Aseguruak	21	62%
Zuzenbidea	1559	63%	Zientzia politikoa eta Kudeaketa publikoa	211	61%
Lan-erlazioak	46	63%	Geologia	100	59%
Biologia	252	62%	Ingurumen-zientziak	38	58%
Bioteknologia	105	59%	Diseinu Industrialeko Ingeniaritza	116	58%
Lehen hezkuntza	1062	59%	Enpresa kudeaketa eta marketina	230	58%
Ikusentzunezko komunikazioa	209	56%	Negozioen kudeaketa	470	55%
Soziologia	187	56%	Fiskalitatea eta Herri administrazioa	101	55%
Kazetaritza	442	54%	Buruzagitza, ekintzailtza eta berrikuntza	61	54%
Kimika	214	54%	Kriminologia	43	52%
Marketinga	147	54%	Ingurumen Ingeniaritza	46	52%
Industri Antolamenduko ingeniaria	138	52%	Enpresazuzendaritza eta -administrazioa	1371	49%
Matematikak	195	52%	Ingeniaritza kimikoa	161	49%
Ingeniaritza kimikoa	170	51%	Matematikak	177	48%

Matematikak	195	52%	Ingeniaritza kimikoa	161	49%
Ingeniaritza kimikoa	170	51%	Matematikak	177	48%
Enpresazuzendaritza eta -administrazioa	1400	51%	Industri Antolamenduko ingeniaria	125	48%
Ingurumen Ingeniaritza	42	48%	Marketinga	127	46%
Kriminologia	39	48%	Kimika	184	46%
Buruzagitza, ekintzailtza eta berrikuntza	52	46%	Kazetaritza	374	46%
Fiskalitatea eta Herri administrazioa	83	45%	Soziologia	148	44%
Negozioen kudeaketa	379	45%	Ikusentzunezko komunikazioa	165	44%
Enpresa kudeaketa eta marketina	170	43%	Lehen hezkuntza	729	41%
Diseinu Industrialeko Ingeniaritza	83	42%	Bioteknologia	72	41%
Ingurumen-zientziak	27	42%	Biologia	155	38%
Geologia	69	41%	Lan-erlazioak	27	37%
Zientzia politikoa eta Kudeaketa publikoa	133	39%	Zuzenbidea	902	37%
Finantzak eta Aseguruak	13	38%	Antropologia soziala eta kulturala	30	35%
Ingeniaritza Zibila	110	38%	Herri Administrazioen Zientzia Juridikoak	14	34%
Ekonomia	200	36%	Fisioterapia	77	33%
Filosofia	29	32%	Hizkuntza eta Euskal Kultura	19	31%
Filosofia, politika eta ekonomia	23	30%	Biokimika eta biologia molekularra	60	31%
Industria teknologiaren Ingeniaritza	424	30%	Lanerlazioak eta Giza baliabideak	170	31%
Fisika	143	29%	Odontologia	52	29%
Politika eta administrazio zientzia	19	29%	Sorkuntza eta Diseinua	116	29%
Meategietako teknologiaren eta energiaren Ingeniaritza	23	28%	Artearen historia	47	28%
Geografia eta historia	53	27%	Artea	158	27%
Telekomunikazioingeniaritza teknikoa	104	27%	Espainiar hizkuntza eta literatura	25	27%
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak	144	27%	Medikuntza	493	27%
Humanitateak	7	25%	Nazioarteko harremanak	110	27%
Komunikazio teknologien Ingeniaritza	1	25%	Publizitatea eta harreman publikoak	148	26%
Ingeniaritza elektronikoa	57	23%	Gizarte-Hezkuntza	235	26%
Ingeniaritza elektrikoa	43	22%	Turismoa	51	25%
Industria teknologien Ingeniaritza	4	22%	Hizkuntza modemoak	52	25%
Ingeniaritza nautikoa eta itsas garraioa	21	22%	Ikasketa ingelesak: hizkuntza, literatura eta kultura	27	24%
Elektronika industrialeko eta automatikoko Ingeniaritza	108	18%	Gizarte-lana	91	21%
Informazio teknologien ingeniaritza	4	17%	Psikologia	250	20%
Kudeaketa eta Informazio Sistemak Ingeniaritza Informatikoa	50	17%	Kultur ondasunen zaintza eta zaharberritzea	41	19%
Ingeniaritza mekanikoa	125	15%	Erizaintza	128	19%
Informatika-ingeniaritza	38	11%	Hizkuntza modemoak eta kudeaketa	29	17%
Euskal filologia	0	0%	Haur-hezkuntza	109	11%
GUZTIRA	17 023		GUZTIRA		13 945


1.Taula. 2021. Iturria: Eustat.

Ingeniaritza ia gehienetan emakumezkoen presentzia oso urria da: Itsas Ingeniaritza, Informatika, Mekanikoa, Kudeaketa eta Informazio Sistemak, Informazio Teknologia, Elektronika Industrialia eta Automatikoa, Ingeniaritza Nautikoa eta Itsas Garraioa, Industria Teknologiena, Elektrikoa,

Elektronikoa, Komunikazio Teknologiena eta Telekomunikazioarena. Esparru horietan, ikasleen %73 baino gehiago gizonezkoak dira. Jarduera Fisikoen zientzietan, Politika eta Administrazio zientzietan, Humanitateetan, Geografia eta Historia zein Fisikan; presentzia ere desparekatua dago, gizonezkoena %70aren goitik ageriz. Haur Hezkuntzan, aldiz, %89a emakumeek osatzen dute. Eta horrekin lotuta; Pedagogian, Hizkuntza modernoak eta Kudeaketan, Erizaintzan, Kultur ondasunen zaintza eta zaharberritzean, Psikologian, Gizarte Langintzan, Ingeles ikasketetan, Hizkuntza modernoetan, Turismoan, Gizarte-Hezkuntzan eta Publizitate Harremanetan ere haien presentzia da nabariena. %74a gaindituz (1. Taula).

5.2.2 Parekidetasunaren grafikoak

Parekatua al dago arlo bakoitzean?




30. Grafikoa. Parekidetasun grafika. Iturria: Eustat.

Karrera baten emakumeen presentzia nabariena bada, gizonezkoena oso urria izango da; eta berdina, alderantziz. Gainera, ikasketa horiek zurtain desberdinetakoak direlarik, gizartean haiek izango duten funtzioa ere ez da berdina izango. Hori dela eta, ikasketa-adarraren arabera sailkatu dira Bizkaiko unibertsitateko karrera guztiak, eta bakoitzean emakumeek eta gizonezkoek daukaten presentzia neurtu da ehunekoetan. Horrela, parekidetasun gutxiengoa daukaten ikasketa arloak identifikatu dira. Grafikoari begira, berdinkidetasun nabariena daukaten karrerak “gizarte zientziak eta zuzenbidea”, “gizarte zerbitzuak” eta “zientziak eta informatika” dira. Ostera, desberdintasun handiagoa nabari da “hezkuntza”, “osasuna eta zerbitzu sozialak”, “arteak eta gizarte zientziak” eta “ingeniaritza, eraikuntza eta industria” esparruetan. Horrela, nabaria da barruti horietan gehiengoaren papera emakume edo gizonek hartzen dutela (30. Grafikoa).

Bizkaiko “hezkuntza” arloan dauden ikasle guztietatik, emakumeek %70a baino gehiago osatzen dute, atzera, gizonek %30a baino gutxiago. Bizkaiko “osasuna eta zerbitzu sozialak” atalera bagoaz, arlo horretan dauden emakume diren ikasleak ere askoz gehiago dira, %75 zehazki.

Aitzitik, “ingeniaritza, eraikuntza eta industria” eremuko ikasleen multzoan, ikasle gehienak gizonezkoak dira; ia %75. Azkenik, parekidetasun gutxienerako barrutiek “arteak eta gizarte zientziak” barruan sartzen diren ikasle multzoa daukagu; zeinetan emakumeen presentzia %70a den (30. Grafikoa).


Unibertsitatean matrikulatu diren gizon-emakumeek zer hautatu dute?



31. Grafikoa. Hautuen grafika. 2021. Iturria: Eustat.

Nahiz eta gizarteko esparru bakoitzean gehiengoak zein den aztertu; unibertsitatean matrikulatu diren 56 845 banakoen artean; emakume eta gizonek ze esparrutako karrerak aukeratzeko joera izan duten adierazi da. Horrela, unibertsitatean doazen emakume zein gizon gehienak “gizarte zientziak eta zuzenbidea” esparrurantz bideratu direla antzeman da, %40a izanik. Hala eta guztiz ere, gizonezkoen artean, gehiengoak “gizarte zientziak eta zuzenbidea” hautatzeaz aparte, (%30) “ingeniaritza, eraikuntza eta industria” atalera zuzentzeko joera dauka. Aldiz, emakume diren ikasle gehiengoak %20an “hezkuntza” eta “osasuna eta zerbitzu sozialak” partera bideratzen dira (31. Grafikoa)

5.2.3 Laneratzea



32. Grafikoa. Emakumeen eta gizonen hautuen grafikak. 2021. Iturria: BBVA fundazioa.

Aurreko atalean ikusten den bezala, emakume eta gizonen unibertsitate karrera desberdinak aukeratzeko joera daukatela bistakoa da. Gizartean karrera horiek bukatzean, lan munduan nolako balioa hartzen duten ikusteko, BBVAko unibertsitatekoak laneratzeko dauzkaten aukeren publikazioan agertzen den datuak erabili dira. Informazio horren bitartez, unibertsitate ikasketa bakoitzean Gizarte Segurantzari buruzko datuak aztertu daitezke. Datu horiek, lan munduan sartzearekin zerikusia daukate, baita enpleguaren kalitatearekin ere. Laneratzeari buruzko goiko bi grafiketan, emakume eta gizonak %70 baino gehiago diren matrikulatutako unibertsitate karreretan, zer nolako Gizarte Segurantza kotizatzen den adierazten da. Horrela, talde bakoitzak aukeraturako karrerak zer nolako bizi kalitatea eskaintzen dieten ikus daiteke. Hala nola, jaso diren emaitzak berdintsuak dira, nahiz eta gizonezkoena pixka bat altuago izan (32. Grafikoa)

5.3 Ondorioak

Behaketaren bitartez, atera daitekeen konklusio orokorra, genero rolen unibertsitateko aukerak baldintzatzen dituztela da. Eta, ondorengoz, lan munduan berriz berreraikitzen direla jarrera berdina. 2015ean argitaraturiko PISA txostenean egindako ikerketa guztietan genero-arraila mantentzen dela esaten da: "Genero-arraila kontzeptua, emakume eta gizonen artean aldagai baten inguruan dauden desberdintasunak adierazteko erabiltzen da, kasu honetan ikasketei begira dituzten jarrera, emaitzak eta aukera akademikoetan agertzen direnak. Hau ulertzen lagundu dezaketen arrazoi batzuk ematen ditu" (Ugarte et al. s.d. 4 or.). Lehen Hezkuntzatik detektatu daitekeen arraila honek, unibertsitateraino irauten duela ikusi da ikerketa honen bitartez, eta oraindik ere, Bizkaian matrikulatu diren emakume gehienek osasun eta hezkuntza arlorantz hautu egiteko joera daukatela ikusi da. Aldiz, gizonezkoak ingeniariarantz zuzentzen dira gehiago. Genero rola aztertzen baditugu, emakumeak kulturalki egokitu zaion jarrera eta jokabideak ere zaintzan eta laguntzan zentratzen dira. Aldiz, gizonezkoarenak ekintzan eta agintaritzan. Horrekin lotuta, bakoitzak egiten dituen hautuak ez dira guztiz libreak genero rolekiko.

Hala eta guztiz ere, kultura hegemonikoaren gorpil hori apurtzeko, esan beharra dago Bizkaiko unibertsitatean matrikulatu den ikasle kopuru gehiengoak emakumeak direla; eta horrek, eskola arrakasta gehiago izan dutela adierazten du. Gainera, lan munduan gizarte segurantza antzeko neurrian kotizatzen dutela ere ikusi da, eta horrek, autonomia eta diru irabaziak antzekoak direla erakusten du. Horretaz aparte, lan munduan hezkuntza eta osasuna gehiago baloratzen hasi direla ikus daiteke. Aitzitik, ikasleriaren gehiengoak Giza zientziak eta Zuzenbidea era berdinkidetsuan aukeratzeko orduan, ikusten da, aukeraketak genero roletatik gehiago banatzen hasi direla. Hala eta guztiz ere, gai horretara bueltatuz, hezkuntza eremuan gehiengoak emakumeak direla ikus daiteke. Hortaz, hezkuntza feminizatua dagoela ondorioztatu daiteke.

Hezkuntza eta osasuna, esan bezala, zaintzarekin oso lotuta dauden arloak dira. Gizarte kapitalista batean, gehienbat baloratzen dena produkzioa izanik; bi eremu horiek burusoil geratzen dira sistemaren aurrean. Hezkuntzak eta osasunak ez du materialik produzitzen, eta hortaz, ez

dira behar bezala ordaintzen. Hori dela eta, infrabalaratu egiten dira. Gainera, infrabalaratzen diren gune horiek emakumeekin lotuta daudelarik, sistema heteropatriarkatuaren botere eta indarkeria harremanak islatzen dira kapitalismoaren ondoan: “Aukerak egiteko unean, ingeniariak edo informatika gradua eta ogibide gisa neskek baino lau aldiz mutil gehiagok hautatzen dute (mutilek nahiz eta emaitza eskasagoak izan eurengan konfiantza handiagoa dute). Osasun zientzietan, aldiz, kontrako egoera agertzen” da. (PISA, 2015, 4.orr.)

6. ONDORIO NAGUSIAK

Hezkuntza Lege Hezkidetzagilea (2021)

Hezkidetzaren aldeko legea ikastetxeetan jartzeko, ezinbestekoa da haien partetik inizatiba bat egotea. Hala nola, nahiz eta eskola publikoen %10ak oraindik prest ez daudela adierazi, gehiengoak haien partetik genero berdintasun jarraibideak ikastetxean aplikatzeko seinalea eman du, eta hori adierazgarri positiboa eta aurrerakoia da legearen aldetik. Hala eta guztiz ere, lege hau 2013-2014 ikasturtean jarri zen martxan eta ikastetxeei begira, nahiz eta %40 inguruak hezkidetzara urtero landu, hutsune handia nabari da eskoletan. Ikastolei dagokienez, legedia hau kontuan hartu gabe, antzeko kopuru baten lantzen dute eskoletan genero berdintasuna; alabaina, plan desberdinak lantzen dituzte, honela adierazi zuen ikerketako galdetegian Bizkaiko D ereduko ikastetxe kontzertatu-pribatu batek: “Ikastetxeko Hezkidetzara proiektu propioa daukagu eta ikasturtean zehar hainbat ekintza burutzen dira geletan zuzenean edo ikastetxe mailan akademikotik bereiz.” Hori horrela, kontuan hartuta legediaren indarrak eskola publikoentzat bakarrik daukala eragina, kopuru hantzekoan aurreratu dute pribatu zein kontzertatu diren eskolek ere. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago, GrAL honi erantzun dion gehiengoa D ereduko eskola publikoak izan direla. Horrez gain, nahiz eta formakuntza orduak parekideak izan, ikastetxeen egitura desberdina da pribatu zein publikoetan, aitzitik, eskola publikoetan gehiago nabari da komun mistoen eta futbol zelai gabeko patioen presentzia. Honenbestez, ondorioztatu daiteke ikastetxe publikoetan aplikatzen diren genero berdintasun plangintzak integralagoak eta sistematikoagoak direla ikastetxearen antolakuntzari begira. Honi gehitzeko, galdetegian D ereduko eskola pribatu-konzertatuetako ordezkari batek honelako hau idatzi zuen: “Ikastetxe guztietako etapa desberdibetan egon beharko litzateke hezkidetzara arduradun bat ikuspegi hezkidetzagile batekin lan egiteko. Betaurreko more gehiago behar ditugu”.

Hezkuntza zentroetako errealitatea

GrAL honetako ikerketako emaitzak kontuan hartuta eskola guztietan gabezia eta aurrerapen handiak ikus dira; ikastetxearen antolamenduari begira, bai eta bertako kideen kohesio eta jarreraren aldetik. Hasteko, esan bezala, zentro guztietako langileen gehiengoa emakumeak dira, eta horren barruan, gorputz hezkuntzako irakasleak gizonezkoak. Honi gehitzeko, nahiz eta zuzendaritzan emakumeen presentzia agerikoa izan, zentroa garbitzeaz arduratzen direnak ere

emakumeak dira. Langileen distribuzio horrek, genero rola inkontzienteki nabarmentzen ditu eta ikasleengan zuzeneko eragina daukate. Honez gain, jarrerarekin lotuta, ikasgeletako protagonismoa ere mutilek eramaten dute gehienbat, eta hori, jarrera txarragatik ireki dituzten parte kopuruetan islatu daiteke; ehuneko handi batean gehiengoa mutilak baitira. Autoritateari zalantza egin, banakoenganako jarrera agresibo edo dominatzailea izan eta ikasgelan espazio gehien okupatzea maskulinitatearekin lotzeak ere genero rola markatzen ditu. Gainera, agresibitateari lotuta, harreman desparekideak eraikitzea ekartzen du, eta, ondorioz, gainontzekoen gaintik jartzea. Ikasleen arteko harremanetan, segregazio automatikoa nabari da oraindik ere ikastola nahiz eskoletan. Neska-mutilak patioan elkar banatzen dira, eta komunak ere segregatuak dauzkate (gehiago eskola pribatu-kontzertatuetan; %72). Honekin lotuta, segregazioa handiagoa izango da futbol zelaia nagusi den ikastetxeetan, izan ere, estereotipatutako kirol bat izandakoan, espazio gehiengoa okupatzen duen jolas bat bihurtzen da eta mutilek haintzat hartzen dutena.

Genero-arraila hezkuntza sisteman; aukera baldintzatua

Hezkidetzari buruzko plangintzei esker ikastetxeak haien egituraketa aldatzen ari direla ikus daiteke; komun mistoei eta futbol zelairik gabeko patioei leku eginez. Hala eta guztiz ere, historian zehar barneratu izan diren ohitura eta arauen ondorioz, oraindik ere sexismoa nabari da eskoletan; esaterako, oraindik ere ikasleak automatikoki segregatzen dira ikastetxe askotan eta jarrera txarra izatearen rola mutilek hartzen dute. Inkontzienteki erreplikatzeko den sexismoa, hau da, genero rola eta horrek dakarren indarkeria sinbolikoa unibertsitateko ikasketak aukeratzeko orduan islatzen da. Ez da berezkoa edo kasualitatea, izan ere, emakumeek zaintzarekin zerikusia daukaten arloak hautatzea; "Osasuna eta zerbitzu sozialak" eta "Hezkuntza"; eta gizonezkoek eraikuntzarekin zerikusia daukatenak; "Ingeniaritza, eraikuntza eta industria". Ikerketa honetan, beraz, antzeman da nola emakume eta gizonek haien etorkizuneko lana eta karrerak aukeratzeko orduan daukaten tendentzia horiek ez direla berezkoak eta bizitza osoan zehar, tartean, eskolan barneratu dituzten ohitura eta baloreetatik eratorriak daudela. Hori dela eta, bakoitzak bere lana eta horrekin batera gizartean izango duen identitatea aukeratzeko orduan, horren garapen prozesua askea eta naturala izan ez delarik, hautuak ere ez dira askeak izango; hau da, ez dira genero berdintasunean oinarrituta egongo.

Hezkuntza sistema feminizatuta. Nolako garrantzia dauka gizartean?

Hezkuntza emakumeen lana bezala ikusten da, eta hori baieztatzeko lan honetan ikastetxe bakoitzean emakumeen zenbatekoa nolakoa den ikustea besterik ez da behar. Zuzendaritzan zein irakasleen artean gehiengoa emakumeak dira ia ehuneko ehunean. Ikerketa askok gainera, tartean Hezkuntza, Ikus-entzunezko Agentzia Betearazlea eta Kulturalak (2010) egindakoak, irakaskuntza lanbidearen barruan, emakumeen presentzia irakaskuntzaren beheko mailetan handiagoa dela frogatu dute; aldiz, gizonen presentzia masiboa dela goiko mailetan. Horrez gain, GrAL honetako ikerketa lanera bueltatuz, gorputz hezkuntzako irakasleen gehiena gizonezkoak

dira. Beraz, kargu akademikoak ere sexuagatik bereizten direla antzeman daiteke irakaskuntzaren barruan ere. Hala eta guztiz ere, zaintzarekin hain lotuta dagoen hezkuntza emakumeena dela esaten da; emakumeen gehiengoa beti izan delako horren arduradun, eta urteak pasa ahala, ikus daitekeelako oraindik ere haien hautua esparru horretara bideratuta dagoela.

Arau heteropatriarkatuen zikloa

Lan hau ikusmira orokor batetik antzematen bada; loturak egin daitezke atal desberdinen artean. Sistema heteropatriarkatua, aipatu bezala, gizarteko edozein esparrutan aurkitu daiteke forma desberdinekin; horregatik, hori identifikatzea, eta berdintasunera begira, aldaketa bat egiten hasteak denbora eta esfortzu handia eskatzen du. Indarkeria harremanak oso barneratuta ditugun zerbait dira, izan ere, historian zehar emakumeak beti izan ditu jendartearekin zerikusia ez dauzkan rol eta zereginak. Betidanik; produkzioa, indarra, akzioa... baloratzen dituen sistema batean bizi izan gara, eta bizi gara oraindik ere; horrenbestez, zaintza, osasuna... eta beste hainbeste konnotazio emakumearekin zerikusia daukatenak, ez dira baloratu. Hori dela eta, kultura hegemoniko hori, hezkuntza esparruan, curriculum ezkutuan geratu da. Ondorioz, behin eta berriz erreplikatzeko egon diren indarkeria harremanak guztiongan eragina daukatela kontzientzia hartzea da, ardura hartzearen lehen pausoa. Hezkuntza Lege Hezkidetzagilea horren emaitza da, eta hezkidetzaren legitimazio eta inserzioa dira horren erantzun. Oraindik ere, nahiz eta hezkuntza zentroetan aldaketa ugari egin diren; artean, komun segregatuen batuketa, futbol zelaiaren eta beste txoko estereotipatuen ezabaketa, irakasleen formakuntza... unibertsitateko aukeraketen emaitzak erakutsi dute hezkuntza sistemak indar gehiago behar duela hezkidetzan eta aldaketa prozesuan bagaude ere oraindik luzea dela ibilbidea.

7. BIBLIOGRAFIA

Amela, V. M. (2012). La contra: Josep Redorta. *La Vanguardia*. 2021-06-14 kontsultatua, eskuragarria La Vanguardia web orrialdean, helbide honetan: <https://www.lavanguardia.com/lacontra/20121123/54355525736/la-contra-josep-redorta.htm>

Aranda, R. Gizontasun hegemonikoa. *Pikaramagazine*. 2021-06-08 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: <https://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=eu&let=g&ter=gizontasun-hegemonikoa>.

Beavoir, S. (1987). *El Segundo Sexo*. Paris: Gallimard.

Barba Pan, M. (2019). 15 frases y fragmentos destacados de 'El segundo sexo'. 2021-04-21 kontsultatua, eskuragarria El Español web orrialde ofizialean, helbide honetan: <https://www.aboutespanol.com/15-frases-y-fragmentos-destacados-de-el-segundo-sexo-1271>

Barquín López, A. (2015). El váter de la escuela. Athenea Digital. *Revista de pensamiento e investigación social*, 15, 303-315.

Ballarín Domingo, P. (2018). Feminism and education. Story of a joint journey. *Hist. educ.*, 37, 37-67.

Carreras Universitarias por Ramas. (s.d.). 2021-05-25 kontsultatua, eskuragarria Centros Universitarios web orrialde ofizialean, helbide honetan: <https://www.centrosuniversitarios.com/estudiar/#>

Casero Martínez, A., Navarro Guzmán, C. (2012). Análisis de las diferencias de género en la elección de estudios universitarios. *Estudios sobre educación*, 22, 115-132.

Cortada Andreu, E. (1999). De las escuelas de niñas a las políticas de igualdad. *Cuadernos de pedagogía*, 286, 43-47.

Eizagirre Ortega, S. (2013). Hezkidetza eta Sexismoa Hezkuntzan. [Gradu Amaierako Lana, UPNa] 2021-04-09 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: <https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/8223/GBL-%20Sonia%20Eizagirre.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

El Derecho a la Educación. (2019, otsailak 14). 2021-04-06 kontsultatua, eskuragarria UNESCO web orrialde ofizialean, helbide honetan: <https://es.unesco.org/themes/derecho-a-educacion>

EMAKUNDE. (2015). *Feminismoaren Historia*. Irekia. [Bideoa]. 2021-04-11 kontsultatua, eskuragarria Amarauna.euskadi web orrialde honetan: <https://www.amarauna.euskadi.eus/es/recurso/feminismoaren-historia-emakunde-/8c64ecd4-3e25-4c82-a83f-daf11aa20725>

Euskal AEko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak, gradu ikasketetan titulazioaren arabera, lurralde historikoari eta sexuari segituz. (2018-2019). 2021-05-16 kontsultatua, eskuragarria Eustat web orrialde ofizialean, helbide honetan: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0003200/ti_alumnado-matriculado-en-las-universidades-de-la-ca-de-euskadi-en-estudios-de-grado-por-titulacion-segun-territorio-historico-y-sexo-201819/tbl0003205_e.html

Euskal Heziketarako egitasmoa. (2019, martxoak 20). 2021-04-09 kontsultatua, eskuragarria HIK HASI web orrialde ofizialean, helbide honetan: http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20190320/ZUZENDARITZA_Pedagogia_sistemikoaren_argitara

Eurydice (2010). *Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa*, 1-143. España: Subdirección General de Documentación y Publicaciones.

Facio, A., Fries, L. (2005). Feminismo Genero y patriarcado. *Revista Sobre la Enseñanza del Derecho de Buenos Aires*, 6, 259-294.

Fernández Enguita, M. (1997). La educación en una sociedad en cambio. (56-67). Ágora.

Galarraga Aiestaran, A. (2015). Bi sexuen sailkapenaz harago. 2021-04-07 kontsultatua, eskuragarria Zientzia.eus web orrialde ofizialean, helbide honetan: <https://zientzia.eus/artikuluak/bi-sexuen-sailkapenaz-harago/>

Garcia Uribarri, A. (2015, ekainak 27). Mundua mugitzen duten langile ikusezinak. *Berria*. 2021-05-21 kontsultatua, eskuragarria Berria web orrialdean, helbide honetan:

http://www.berria.eus/paperekoa/1812/008/001/2015-06-27/mundua_mugitzen_duten_langile_ikusezinak.htm

Gimeno, B. (s.d.). Heteronormatibitatea. *Pikaramagazine*. 2021-04-08 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: <https://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=eu&let=h&ter=heteronormatibitat>

Gimeno Amparo, B. (1994). Informe sobre la igualdad de oportunidades educativas entre los sexos. *Organización de estados iberoamericanos*, 6, 123-145.

Gorputz Hezkuntza. *Orientabide Didaktikoak*. (s.d.). Eusko Jaurlaritza. 2021-04-04 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan:

http://nagusia.beritzeguneak.net/gaitasun/docs/orientaciones/heziketa_fisikoa_eu.pdf

Herrera Gómez, C. (s.d.). Genero-identitatea. *Pikaramagazine*. 2021-05-07 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: <http://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=eu&let=g&ter=genero-identitatea>.

Hezkidetza Gida. (s.d.). Euskal Herriko Bilgune Feminista. 2021-04-09 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: <https://www.emagin.eus/wp-content/uploads/2018/02/HEZKIDETZA-GIDA.pdf>

Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana. (2013). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 2021-05-11 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetza_plana_e.pdf

How common is intersex? (2008). 2021-04-11 kontsultatua, eskuragarria Intersex Society of North America web orrialde ofizialean, helbide honetan: <https://isna.org/faq/frequency/>.

IE2 Legea. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna. EAE. (2021, martxoak 1). Eusko Jaurlaritza. 2021-05-21 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_coeducacion_proy_actuacion/eu_def/adjuntos/HZKD_Hezkidetza_publicoa_2021_e.pdf

Indarkeria matxistaren izeberga. (2015, azaroak 25). 2021-06-05 kontsultatua, eskuragarria Zumaiako asanblada feminista web orrialdean, helbide honetan:

<https://www.google.com/url?sa=i&url=https%3A%2F%2Fbaleike.eus%2Fzumaia%2F1448473936791-indarkeria-matxistaren-izeberga&psig=AOvVaw2-EjDwQaraLAUEEL9FTeyP&ust=1620495040345000&source=im>

Irigoyen Perurena M.J., Otaduy Bengoa M.L., Ugarte Maiztegi, B. (s.d.). Anitzak Garelako. Hezkidetzaren alde busti. [Datu akademikoak, UPV/EHU].

Irigoyen Perurena M.J., Otaduy Bengoa M.L., Ugarte Maiztegi, B. (s.d.). Betaurrekoen Garrantzia. Hezkidetzaren alde busti. [Datu akademikoak, UPV/EHU].

Irigoyen Perurena M.J., Otaduy Bengoa M.L., Ugarte Maiztegi, B. (s.d.). Esaten Direnen eta Ez Direnen Indarra. Hezkidetzaren alde busti. [Datu akademikoak, UPV/EHU].

Irigoyen Perurena M.J., Otaduy Bengoa M.L., Ugarte Maiztegi, B. (s.d.). Ikusezinak Protagonista Bihurtzen. Hezkidetzaren alde busti. [Datu akademikoak, UPV/EHU].

Irigoyen Perurena M.J., Otaduy Bengoa M.L., Ugarte Maiztegi, B. (s.d.). Zaindu maite dituzunak (eta ez dituzunak). Hezkidetzaren alde busti. [Datu akademikoak, UPV/EHU].

Kay Friedman, C. (2007, urtarrila) The Sozialization of Gender. [Doktoretza tesia, University of Texas]. Eskuragarria helbide honetan: https://www.researchgate.net/publication/232459559_The_Socialization_of_Gender

Lacunza Escaray, O. (2013). Hezkidetzeta pertsonaren garapen integrala helburu. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. [Gradu Amaierako Lana, UPNa]. Eskuragarria helbide honetan: <https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/8180/HEZKIDETZA.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Las posibilidades de inserción laboral de los universitarios pueden llegar a triplicarse según la titulación elegida. (2019). 2021-05-25 kontsultatua, eskuragarria BBVA fundazioa web orrialde ofizialean, helbide honetan: www.fbbva.es

Lorente, S. (2021). Cuáles son las banderas LGBTIQA+ y cuál es su significado. 2021-06-07 kontsultatua, eskuragarria Cosmopolitan web orrialdean, helbide honetan: <https://www.cosmopolitan.com/es/consejos-planes/familia-amigos/a27050954/banderas-lgbti-significado/>.

Martín Haro, A. (2015). Características generales del alumnado de educación primaria. Objetivos generales de etapa. Competencias clave. [Lan akademikoa, Universidad de Castilla-La Mancha]. Eskuragarria helbide honetan: <https://es.slideshare.net/marcoscarrillop3/caractersticas-generales-del-alumnado-de-primaria>

Martínez, A. (2011-2012). Los cuerpos del sistema sexo/género: Aportes teóricos de Judith Butler. *Revista de psicología*, 12, 127-144.

Molina, M. (2005, ekainak 5). Publicada por primera vez en castellano la 'Enciclopedia de paz y conflictos' de Educación. *El País*. 2021-06-05 kontsultatua, eskuragarria El País web orrialdean, helbide honetan: https://elpais.com/diario/2005/06/05/andalucia/1117923745_850215.html.

Montero Alcaide, A. (2009). *Una ley centenaria: la Ley de Instrucción Pública (Ley Moyano, 1857)*, 1, 1-6.

Navarro, R. (2010). Socialización de género. [Lan akademikoa, Universidad de Castilla-La Mancha]. Eskuragarria helbide honetan: https://www.researchgate.net/publication/280157550_Socializacion_de_genero

Niebla, R. (2021. otsailak 9). Patios igualitarios frente al 'futbolcentrismo': así debería ser el recreo escolar. *El País*. 2021-04-05 kontsultatua, eskuragarria El País web orrialdean, helbide honetan: (<https://elpais.com/mamas-papas/2021-02-09/patios-igualitarios-frente-al-futbolcentrismo-asi-deberia-ser-el-recreo-escolar.html>)

Patriarkatua. *Asiloari Buruzko Hiztegia*. 2021-04-07 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: <https://diccionario.cear-euskadi.org/eu/patriarcado/>

Pisa in Focus. (2015). *¿Qué subyace bajo la desigualdad de género en educación?*. OECD. 2021-05-25 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: <https://www.educacionyfp.gob.es/dctm/inee/pisa-in-focus/pif49espfinal.pdf?documentId=0901e72b81c7fb18>

Raffio, V. (2019). Desmontando el mito del sexo binario: no todo encaja en dos categorías. *El Periódico*. 2021-04-10 kontsultatua, eskuragarria El Periódico web orrialdean, helbide honetan: <https://www.elperiodico.com/es/sociedad/20190626/mito-sexo-binario-hombres-mujeres-intersexuales-75210>

Relaciones igualitarias, inclusivas y respetuosas en las familias para prevenir la violencia. (2018). 2021-06-10 kontsultatua, eskuragarria Observatorio Nacional Contra la Violencia Contra las Mujeres web orrialde ofizialean, helbide honetan: <https://observatorioviolencia.pe/relaciones-igualitarias-familias/>

Rivas Martínez, F. (1989). El Asesoramiento Vocacional Como Relación de Ayuda Técnica Reflexión Teórica y Resultados de Investigación. *Papeles del Psicólogo*, 39-40.

Salvador, I. (2018). Socialización primaria y secundaria: sus agentes y efectos. 2021-06-10 kontsultatua, eskuragarria Psicología y mente web orrialdean, helbide honetan: <https://psicologiymente.com/desarrollo/socializacion-primaria-secundaria>

Santos Guerra, M.A. (1990). Curriculum oculto y construcción de género en la escuela. [Universidad de Málaga].

Sau, V. (2000). *Nuevas masculinidades*, 29-40.

Ugarte Maiztegi, B. (s.d.) Hezkidetza. *Pikaramagazine*. 2021-04-12 kontsultatua, eskuragarria helbide honetan: <https://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=eu&let=h&ter=hezkidetza>.

8. ERANSKINAK

A ERANSKINA: Miguel Angel Santos Guerra (1990) *Curriculum oculto y construccion de genero en la escuela* lanean oinarritutako taula

Curriculum edukiak
Liburuak ikasleen ikasketa prozesurako baliabide garrantzitsuak dira, asko erabiltzen den materiala delako. Diziplina desberdinetako edukiek eta testuliburuek planteatzen dituzten ereduak ikuspegi androzentrikotik planteatuta daude. Gainera, batzuetan emakume eta gizonen estereotipo tradizionalak antzeman daitezke. Honela definitzen du Victoria Sau Sanchezek (2000) androzentrismoa: "Gizona diskurtsoaren zentrotzat, ardaztat, erreferentziatza edo neurritzat hartzeari esaten zaio. Alegia, unibertsoaren erdian gizonaren begirada kokatzen duen ikusmira da, gizona eginez gauza guztien neurria, eta neurri horren arabera egiten du humanitatearen irudikapen globala. Ondorioz, bestelako errealitateak ezkututzen ditu, besteak beste, emakumeena" (Sau, 2000, 45 or.)
Irakasleen itxaropenak
Irakasleek ikaslearen generoaren arabera harekiko dituzten itxaropenak faktore garrantzitsuak dira hezkuntzan, izan ere, ikasle batekiko itxaropen positiboak izateak ikaslearen autokontzeptua hobetzea eragiten du, eta hobekuntza horrek itxaropen horiek betetzea errazten du. Horrela, nahi gabe, ikasle bakoitzari jarrera eta izaera bat esleitzen zaio, irakaslearen iritzi eta itxaropenekin bat etortzeko.
Mutilen ikusgarritasuna
Ikasgelan sortzen den ekintza bat interpretatzerako orduan jarrera kode desberdin bat dago, haien bitartez, jarrera mota desberdinak positibo edo negatibo bihurtzen dira. Honen bitartez, gehienetan, gizarteko genero konbentzioak ikasgelan islatzen dira: rol agresibo, protesta eta erreklamatihoa, batik bat mutilek hartzen dute. Hori dela eta, orokorrean mutilen jarrera kodeak espazio gehiago okupatzen du eta irakaslearen arreta gehiago eskatzen du, aldiz, neskek rol lotzatiago bat hartzen dute.
Agertokien egitura
Mutilei egokitzen zaien genero rolak espazio gehiago okupatzen du ikasgelan zein patioan. Espazioek portaera sexistaren ereduak erreproduzitzen dituzte: ispilu gehiago dituzten nesken bainuak, kirolek erabat bereganatutako jolas-eremuak, nesken eta mutilen bainugelak egotea... Espazioaren kudeaketa egiterako orduan txikitatik barneratuta ditugun ideietatik abiatzen gara eta bertan geratzen dira genero rol guztiak islatuta: "Espazio desberdinetan egoteak edo ez

egoteak izaeran eta garapen pertsonalean eragina izango du” (Euskal Herriko Bilgune Feminista, s.d., 113 orr.)
Aukeraketa baldintzatua
Eskolak aukera gehiago eskaintzeak ez du esan nahi, era automatiko batean genero rola apurtuko direnik. Hori burutzeko denbora behar da. Hasieran diskriminazioa zuzendu nahi duten horrelako erreforma askok, tartean ezer ez egiteak, diskriminazio hori areagotzea bultzatzen du.
Sekuentziaren porrota
<p>Karrera burutzerako orduan, garrantzi soziala eta ekonomikoa dituzten ikasketetan gizonezkoen presentzia handiagoa da. Zaintzarekin lotutako ikasketetan, aldiz, emakumeena gehiago da. Lan munduan integratzerako orduan, aldiz, emakumearen rola zaintzarekin lotuta dagoenez; etxeko lan guztiaren zama eramateak lan munduan integratzeko zailtasunak sortzen ditu:</p> <p>Zaintza lanak bizitzaren ugaltzearekin zerikusia duten lan guztiak dira, hala nola bazkaria eta erosketak egitea, arropa garbitzea, gaixoak zaintzea, umeak eskolatik jasotzea eta etxeko lanak egiten dituztela ziurtatzea.</p> <p>Lan horiek beharrezkoak dira egunerokoan, baina,aldi berean, erabat ikusezinak eta prestigiorik gabeak. Emakumeek zaintza lanak euren gain hartu dituztenez, estatuak ez dira inoiz arduratu nagusiez, umeez eta gaixoez. Ezkutuko lan horiek gabe gizarteak ezingo luke aurrera egin”. (Garcia-Uribarri, 2015)</p>
Salbuespenen Mitoa
Goi karguetan, zuzendarietan, ministroetan edo eskolan nota hobekak dituzten emakumeak egoteak ez du esan nahi guztiek erraztasun berarekin lor dezaketarik, izan ere, ez du esan nahi guztiek erraztasun berarekin eta, batez ere, gizonek lor dezaketarik erraztasun berarekin lor dezaketarik. Batzuen eta besteen aukera-berdintasunik eza delako arazoa.
Sexu-jazarpena Eskolan
Maskulinitasunak markatzen du jazarpenaren norabidea. Askotan, gizarteak arazo txikitatzat jotzen du lankide gizonezkoen jazarpena, eta txikitatik emakumeak jazarpena onartzera ohitzen ditu, edo gertakari isolatu eta indibidualtzat hartzen du. Horrela, emakumeak horri aurre egiten dionean, indibidualki egiten dio aurre, eta ez kolektiboki, ez baitu gizarte sexista batean ohiko tratu gisa ikusten. Honen isla, broma sexistak direla aipatzen du autoreak.

Broma, musika eta umoreari buruz Hezkidetzaren Alde Busti! datu akademikoetako, Ikusezinak Protagonista Bihurtzen alean aztertzen dute, esanez, kontuan hartu behar dugula urtebetetzeetan, ikasturte bukaeran, kirolean irabaztean, poza eta euforia momentuetan...ze musika mota entzuten dugun eta ze kantatzen den, askotan, adi ez gaudenean letra matxista entzuten delako. Baita ere, ordu libreetan egiten diren jolas asko eta ikasleak animatzeko kanta asko nori zuzendua dauden kontuan hartzekoak dira. Aitzitik, umoreari buruz, esan beharra dago beti ahulenari edo moldatzen ez denari egiten zaiola; eta horretan asko islatzen da oraindik ere gure gainetik jartzeko jarrera (Ugarte et al. s.d., 11 or.).

Kargu Akademikoak

Eskola baten barruan dauden lanbideetan genero desberdintasuna islatzen da. Miguel Angel Santos Guerrak (1990) dioen bezala, gizarte heteropatriarkatuan gizonen ezaugarriak lidergotzarekin eta ludikotasunarekin lotzen dira, aldiz, emakumearena obedientzia eta zaintzarekin. Honekin lotuta 2010ean Hezkuntza, Ikus-entzunezko Agentzia Betearazlea eta Kulturalak Europako Hezkuntza-emaitzetan genero desberdintasunari buruzko ikerketa egin zuenean; hezkuntza feminizatutako arlo bat dela ondorioztatzen du. Ikerketa Europa osoan zehar gauzatzen da eta honelako patroi desberdinak errepikatzen dira: Alde batetik, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle gehienak emakumeak direla adierazten du, baina, zenbat eta hezkuntza-maila altuagoa izan gutxitzen doa kopurua. Bestalde, zuzendaritzako karguari buruz emakumeak gizonak baino gehiago dira Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritza-postuetan. Hala ere, gutxituz doaz Bigarren Hezkuntzan, eta alde handiak daude bi mailen artean: Frantzia, Austria, Eslovakia, Suedia eta Islandia.” (Hezkuntza, Ikus-entzunezko Agentzia Betearazlea eta Kulturala, 2010)

Erritualak, arauak eta hizkerak

Eskola batzuetan uniforme desberdinak erabiltzen dira, hala nola, genero bakoitzak kolore edo forma tradizional bat hartzen du; gehienetan, arrosa eta urdina edo gona eta prakak. Azaleko bereizketa hori, ordea, ez da eskola guztietan egiten, baina, neskak haien edertasunagatik aipatzea eta mutilen haien kirol talde gogokoagatik ohikoagoa da ikastetxe guztietan. Horrez gain, haien artean konpetitza ere, jarrera bat sortzen du, non, ahulenak edo abantaila gutxien dauzkanak beti leku txarrena hartzen duen. Hizkerari begira, honela definitzen dute hizkuntza Hezkidetzaren Alde Busti! datu akademikoetako Esaten Diren eta Ez Direnen Indarra alean: “Hitz egiteko dugun erak mundua konfiguratzeko du eta nolakoa munduaren kontzeptioa, halakoa gure hizkuntza; (...)emakume edo gizon izanda zer den zilegi eta zer ez, zein esparrutan, zein baldintzatan... transmititzen dugu, estereotipo sexistak erreproduzitzen edo gaindituz” (Ugarte et al. s.d., 3 or.). Honekin, beraz, bakoitzak bere identitatea garatzeaz gain talde bateko identitatea bermatzen eragin dezakeela ondorioztatu daiteke.

Helduen Jarrera

Helduak ikasleen eredu dira eta erabiltzen duten hizkera, jarrera, autoritate mota... haiengan islatzen da eta hori barneratzen dute. Arazoa ez da desberdintasuna, desberdintasun horien hierarkizazioa baizik; hau da baliozko rola zeinek hartzen duen.

B ERANSKINAK: Galdetegiak

Euskaraz

HEZKIDETZA GURE ESKOLETAN

Kaixo! Gradu Amaierako Lana egiten ari den magisteritzako ikasle bat naiz.

Bizkaiko ikastetxeetako genero berdintasunari buruzko datuak bildu behar ditut ikerketa honetarako. Horregatik, galdetegi hau zure ikastetxera ere bidali dut!

* Formulario hau GUZTIZ ANONIMOA da* : Ez dira zentrozen izenak erregistratuko, bakarrik informazioa erabiliko da, ahal den eskola gehienetako datuak bateratu eta hezkuntza ikuspuntu hezkidetzaille batetik aztertu ahal izateko.

Test formako 14 galderatxo daude, eta eskola bakoitzeko ordezkari batek bete behar du galdetegia. Hau da, eskola osoan pertsona batek.

Eskerrik asko zuen arreta eta laguntzagatik!

Pregunta

Ikastetxe PUBLIKOA

Ikastetxe KONTZERTATUA

Ba al daukazue genero berdintasunari buruzko planen bat?

Ez, urte hauetan ez dugu eduki

Ez, aurten ez

Tarteka lantzen dugu

Bai, urte osoan landu dugu

Zentroko irakasle guztiek genero berdintasunaren inguruko formakuntzaren bat jaso al dute?

- Bai, urtero
- Bai, behin edo behin
- Ez

Zentroko irakasleek genero berdintasunaren inguruko formakuntza jaso beharko lukete?

- Bai
- Ez

Gorputz hezkuntzako irakasleak...?

- Emakumeak dira
- Gizonak dira
- Gizon/emakumeak dira: emakume gehiago
- Gizon/emakumeak dira: gizon gehiago

Gainerako irakasleak...?

- Emakumeak dira gehienak
- Gizonezkoak dira gehienak
- Parekatuta daude

Ikastetxeko garbitzaileak...?

- Emakumeak dira
- Gizonak dira
- Gizon/emakumeak dira: emakume gehiago
- Gizon/emakumeak dira: gizon gehiago

Ikastetxeko zuzendaria...?

- Emakumea
- Gizona

Nola daude antolatuta ikasleen komunak?

- Neska/mutil
- mistoak
- Beste era batera

Patioko espazio gehiengoa futbol zelaiak okupatzen du?(aurten ez bada, Covid-19aurretik)

- Bai
- Ez daukagu edo ez dugu erabiltzen futbol zelairik
- Ez

Patioan aukera ez estereotipatuak egin daitezkeen guneak daude?

- Bai
- Ez

Patioan neska-mutilak elkarrekin jolasten dira gehienetan?

- Bai
- Ez
- Ez, baina, badaude hainbat talde misto

Eskolan jarrera txarragatik zenbat mutil eta zenbat neskak jaso dituzte parte edo intzidentziak? Neska edo mutil gehiagok?

Texto de respuesta corta

Badaukazue hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida planaren berri? (2021 Hezkidetzeta Legea)

- Bai
- Ez

Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana hezkidetzeta eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko jarduketara proiektuak da. Prest egongo zinateke edo nahiko zenukete zuen ikastetxean lege hau aplikatu?

- Bai
- Ez gaude prest
- Ez

Ezer gehitu nahi baduzu idatzi hemen:

Texto de respuesta larga

COEDUCACIÓN EN NUESTRAS ESCUELAS

¡Hola! Soy una estudiante de magisterio que está realizando el Trabajo de Fin de Grado.

Para esta investigación tengo que recopilar datos sobre la igualdad de género en los centros educativos de Bizkaia. ¡Es por eso que envío este cuestionario a tu centro!

* Este formulario es TOTALMENTE ANÓNIMO* : No se registrarán los nombres de los centros, se utilizará únicamente la información para unificar los datos de la mayoría de las escuelas posibles y poder analizarlos desde una perspectiva coeducativa.

Hay 14 preguntas tipo test que deben ser cumplimentadas por un representante de cada escuela. Es decir, una sola persona en todo el centro.

¡Gracias por vuestra atención y colaboración!

¿Tenéis algún plan educativo de igualdad de género?

- No, estos años no lo hemos tenido
- No, este año no
- Lo trabajamos ocasionalmente
- Si, durante todo el año
- Si, lo trabajamos todos los años

¿Todos los profesores del centro han recibido alguna formación en materia de igualdad de género?

- Si, todos los años
- Si, alguna vez
- No

¿El profesorado del centro debería recibir formación en materia de igualdad de género?

- Si
- No

¿Los profesores de Educación Física...?

- Son mujeres
- Son hombres
- Mujeres/hombres: más mujeres que hombres
- Mujeres/hombres: más hombres que mujeres

¿El resto de los profesores...?

- La mayoría son mujeres
- La mayoría son hombres
- Están igualados

¿Personal de limpieza..?

- Son mujeres
- Son hombres
- Mujeres/hombres: más mujeres que hombres
- Mujeres/hombre: más hombres que mujeres

¿El/la director/a del centro...?

- Mujer
- Hombre

¿Cómo están organizados los aseos de los alumnos?

- Chico/chica
- Mixto
- Otra manera

¿Ocupa la mayor parte del espacio del patio el campo de fútbol? (si no es este año, antes del Covid-19)

- Si
- No tenemos o no utilizamos
- No

¿Hay espacios en el patio donde se pueden hacer opciones no estereotipadas?

- Si
- No

¿En el patio normalmente los niños y niñas juegan juntos?

- Si
- No
- No, pero hay varios grupos mixtos

¿Cuántos chicos y cuántas chicas han recibido parte o incidencia en la escuela por mala conducta?
¿Más chicas o chicos?

Texto de respuesta larga
.....

¿Conocéis el plan educativo para trabajar la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo? (Ley 2021 de Coeducación)

- Si
- No

El plan para trabajar la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo es un proyecto de actuación para trabajar de forma global, sistemática e integrada la coeducación y la prevención y detección precoz de la violencia contra las mujeres. ¿Estaríais dispuestos o quisiérais aplicar esta ley en vuestro centro?

- Sí
- No estamos preparados
- No

Si quieres añadir algo escribe aquí:

Texto de respuesta larga
